



ARGIA

HAZIAK LANTZEA

Desobedientzia ariketa etorkizunaren alde

24-31. orrialdeak

“Haziak kontrolatzen dituenak
elikadura kontrolatzen du,
eta elikadura kontrolatzen duenak
Herria kontrolatzen du”

#2.885 | 2024 / 09 / 22 | 4,00 €



**AEBetan saguzarrak
milioika hiltzearen
irakasgaiak**

12 | INGURUMENA



**“Migratzaileak eramaten
ditut autoan, Poliziak
harrapa ez ditzan”**

32 | GIZARTEA



**Gaina jo duenari,
nola hartu
neurria**

46 | MAKROFESTIBALAK

DATORREN ASTEKO ARGIAREKIN...

IRUÑEKO ERORIEN MONUMENTUA

ERAITSI ALA BESTE ESANAHI BAT EMAN?

Mahai-ingurua:

Asun Larreta, Amaia Lerga,
Fernando Mikelarena,
Fernando Mendiola.



LARRUN #299

HILABETEKARI MONOGRAFIKOA

ARGIA.EUS/LARRUN

Panorama

- 04 | ASTEKO ARGAZKIA
- 06 | AKTUALITATEA
- 07 | MATERIALISMO
HISTERIKOA
- 07 | EZ HANKA EZ BURU


 AZALEKO IRUDIA: **DANI BLANCO / ARGIA-CC-BY-SA**

Iritziak

- 19 | IRATI LABAIEN
- 20 | KATIXA DOLHARE
- 21 | ITZIAR MORENO
- 21 | CASTILLO SUÁREZ
- 22 | JON ALONSO

Finkoak

- 40 | ARGIA KOMUNITATEA
- 41 | DENBORAREN MAKINA
- 42 | BIZI BARATZEA
- 50 | DENBORA-PASAK
- 51 | KULTUR-KRITIKAK
- 54 | EZETZ ASTEA ONDO BUKATU

 SAILLEN GOIBURUETAKO ILUSTRAZIOAK: **CLIPART COURTESY FCIT**

MIKEL GARCIA



32 | MIGRATZAILEEN BIDAIA LAGUNDU DIENAREN LEKUKOTZA

Hendaiaatik Donibane Lohizunera eta Baionara eraman izan ditu etorri berriak Aritzek, bere autoan. Nola eta zergatik egin duen eta ordainetan zer jaso duen azaldu du, Mikel Garciaren galderei erantzunez.

Elkarrizketak eta erreportajeak

12 | NET HURBIL

Saguzarren osasunak gure osasuna babesten du, ezusteko moduan

Nicolas Goñi

14 | PERTSONAIA | J.M URIAGEREKA

"Koreara joan ginenok euskara ederto kontserbatu dugu"

Miel A. Elustondo

24 | ELIKADURA

Haziak eta etorkizuneko auziak

Estitxu Eizagirre

36 | HISTORIA | ZIGA (BAZTAN)

Herri baten sorrera, eskalaz eskala

Josu Narbarte

46 | KULTURA | MAKROFESTIBALAK

Ezin neurria hartu eukaliptoari

Gorka Peñagarikano

48 | KULTURA | BRUCE LABRUCE-K 60 URTE

Kulturaren eta zinemaren kontra

Julen Azpitarte


 ARGIA HIZKUNTZA POLITIKARAKO
SAILBURUORDEZTAK DIRUZ LAGUNTZEN DU:

**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

 KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

Gobierno de Navarra  **Nafarroako Gobernua**

Jabetza
Komunikazio Biziagoa
S.A.L. Ametzagaña Taldeko partaidea

Erredakzioa
Axier Lopez, Eneritz Arzallus,
Estitxu Eizagirre, Gorka Peñagarikano,
Jenofa Berhokoirgoien, Jon Torner,
Lander Arbelaitz, Leire Artola,
Manex Moreno, Mikel Garcia, Onintza
Irueta, Olaia L. Garaialde, Urko Apaolaza,
Xabier Letona, Zigor Oleaga

Diseinua
Maitane Gartzandia

Argazkilaria
Dani Blanco

Produktzioa eta inprimaketa
Antza S.A.L.

Administrazioa
Jone Arzallus, Mari Karmen Loiarde

Salmenta
Karlos Olasolo, Pello Basurto

Banaketa
Olatz Kortza

Azoka
Mikel Olabide

Idazkaritza
Ane Gaztelumendi, Aloña Sorraluze,
Bego Zuza

Web garapena
Asier Iturralde

Informatika
Iametzta interaktiboa, S.L.

Lege gordailua: SS 837-2012
ISSN: 0213-909X
Batzorde parekidea: 72562 E

GREKIN HARREMANETAN JARTZEKO

Posta elektronikoak
komertzial@argia.eus
komunitatea@argia.eus

Telefonoa
943371545

Gipuzkoa
Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria

Nafarroa
Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina,
31001 Iruñea

 Ametzagaña taldeko kidea da ARGIA
honako enpresekin batera:





Doan eta libre

ARGIAko edukiak kopiatu, moldatu,
zabaldu eta argitaratu ditzakezu, gure egiletza
aitortu eta baldintza beretan eginez gero.



Lizentzia hau baliagarria da testuentzat
eta, argazkien eta ilustrazioen kasuan,
ARGIAren sinadura daramatenentzat soilik.


 Ekoedizioaren Institutuko
bazkide da ARGIA



 Ekonomia sozial eraldatzailearen
sareko kide gara



Carne pa' la picadora!

Zioen La Polla Records taldeak aurreko mendearen amaieran, etengabe bizirautea kondenatutakoak gogoan. Sistemaren gurpilak biratzen jarrai dezan, zaugarrienak azken odol tantara arte xurgatu behararen logika. Argentinan ondotoxo dakite hori, gehiengo handi bat aspaldi ez da bizi, biziraun egiten du. Videlaren diktadura neoliberalera, Menemen ultrakapitalismoa edota egungo Mileiren “zuku-makina eta motozerra” ultraeskuindarra. Kate beraren aldaerak dira. Jo-puntuak prekarioenak dituenak, gehiengoak. Argentinako Estatuaren murrizketa politika “berria” pentsiodunek pairatu dute bereziki. Berriki, pentsioen %8ko igoera ezdeusa ere betatu du Mileik. Gehienek, bost milioi baino gehiagok, gutxieneko pentsioa kobratzen badute ere: 290 bat euro hilean. Haragia xehatzeko makinarako lehengaia.

📍 JUBILATUEN PROTESTA KONGRESU AURREAN ETA POLIZIAREN ERREPRESIOA.

RODRIGO ABD/AP

AXIER LOPEZ



Arabako ardogintzan, txikitasuna aldarri

ZIGOR OLABARRIA OLEAGA

Arabako Mahats-bilketaren Jaiaren XXIX. edizioa ospatu dute Moredan. Egun batzuk lehenago ABRA Arabako Errioxako Upategien Elkarreak agerraldia egin zuen, Arabako ardogintzak bizi duen "krisi larriaz" beste behin ohartarazi, eredu aldaketa exijitu, eta Arabako Errioxako ardoa Errioxa sor-markatik ezberdintzeko kanpaina berria iragartzeko. Horretaz guztiaz hitz egin du ARGIAk Itxaso Compañon ardogile eta ABRAko presidentearekin.

Hastear da mahats zuriaren bilketa Arabar Errioxan, astebete beranduago beltzarena. Aurtengo mahats ekoizpena "oso ondo" joan dela azaldu du Compañonek: "Kantitate gutxiago jasoko dugu, baina kalitate oso onekoa". Hain zuzen ere, deitu deigarria eman du Moredako jaiaren bertan Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantzako sailburu Maria Barredok. Azken urtean Arabako Errioxako ardoen kontsumoa %4,4 jaitsi da, eta aurrekusten da aurtengaz baino 123 milioi litro ardo gutxiago ekoiztea (2023ko 377 milioietatik 254ra).

ITOGINAK MARGOZ ESTALI NAHIAN

Iaz Jaurlaritzak 15,3 milioi euro bideratu zituen laguntzetan, batetik pilatutako milioika ardo litro erabilera industrialeko desbideratzeko, bestetik mahastietako mahatsa moztu eta zuzenean lurrera botatzeko. "Bai, berriro ere diru publiko kantitate izugarria adabakietarako", salatu du Compañonek. Gaur gaurkoz laguntza horien beharra defendatu du,

baina kritikatu du beste behin egiturazko erabakirik ez dela hartu, eta hori da Arabako ardogintzak eskatzen duena. "Etxeko sabaian itogina izan eta urtero horma margotuz konpondu nahi izatea bezalakoa da".

2015etik 96 upategi txiki itxi dituzte Arabako Errioxan (358tik 262ra), ABRAk azaldu duenez. Egiazko datua are okerragoa dela azaldu du Compañonek, jarduera bertan behera utzi duten hainbat upategi lizentzia mantentzen dutelako. Beste datu dat: 2017an 1,19 eurotan ordaindu zitzaizen mahatsa nekazariei, eta 2022an, 0,71n. Krisiari aurre egiteko mahatsa "duin" ordaintzea eta zonaldea "berpiztea" eskatu zuen ABRAk, hain zuzen ere. "Urteak dira mahatsa erakundeek ezarritako gutxienezko behera ordaintzen zaiela nekazariei".

Araban nagusi diren upategi txikiak eta Errioxako lurraldea zein Errioxa sor-marka menpean duten upategi handiek eredu kontrajarriak dituztela dio Compañonek. Upategi txikiak familia negozioak izaten dira, kalitatean jartzen dute arreta eta bizirik mantentzen dituzte herriak. Handiak kantitatean oinarritzen dira. Horretarako, besteak beste, lana prekarizatzen dute eta lurra nonahi erosten dituzte. Batzuek, adibidez, hainbat sor-marka ezberdinetan ekoizten dituzte ardoak.

Bestalde, urteak dira Arabako Mahastiak sor-marka propioa aldarrikatzen duela sektoreak. Bideak EAEko epaitegietan blokatuta jarraitzen du. ●



©ABRA_VINO

MOTZEAN

Emakume bat hil dute labankadaz Bilbon, Santutxu auzoan, eta bikotekidea atxilotu dute. Biktimak 31 urte zituen, gizonak 34. Aurten, beste bi emakume hil dituzte Euskal Herrian hilketa matxistetan.

Lanaldia 37,5 ordura jaitsiko duten enpresa txikiei laguntzak ematea proposatu du Espainiako Gobernuak.

Bost urteko espetxe zigorra eskatu diete Covid garaian atxilotutako sei gazteri. 2021eko urtarrilaren 20eko istiluetan atxilotutako gazteek epailearen aurretik pasatu beharko dute urrian.

Txosnen aurkako espedienteak ireki ditu Arabako Aldundiak, Ticket Bai ez erabiltzeagatik.

Israelek beste babesleku humanitario bat bonbardatu du, eta dozenaka palestinar hil. Bosgarren aldia da Israelek eraso egiten diona berak "zonalde seguru" izendatutakoari.

EAEko Hezkuntza Sailak datuen babesa egoki bete gabe egin zuen hitzarmena Google Workspace for Education erabiltzeko.

Merezita




UXUE APAOLAZA LARREA

Krisi existenzial dezente ditut inguruan. Nerabezaroa/gaztaroa itxurakerian pasa, antzezten helburu zutena pertsona onak (ona izanik justua, ez denari baietz esaten dion lerdoa) izatea, benetako bizitza bat bizitzea zela, are, iraultza egitea, eta, orain, berrogei urteak pasa, eta ez dira ez hori (gezur bat zen), ez benetan nahi zutena: izan beti besteei bizitza barkatu ahal izateko bezain dirudun (famiadiun, etxedun, liburutegidun, opordun...), izan prestigio eta duintasun ofizial guztietako tituluak, gero horiek ez dituztenak noizean behin gonbidatzeko jatetxe garesti batera, inoiz izenik entzun ez zuten talde baten kontzertura (sarrerak beste guztiek bezala erosi gabe, "lortuz"), kontatzeko "ez dakizu nolakoak diren"... beren garunaren nonbait meritokrazian sinetsi zutelako, kome-ni zitzaenez izanik gizon, zuri, klase ertain, cis... europar. Izan ere, esan digu filosofoak (*Berrian* irakurria euskaraz): «Zeure buruarekin gezurretan ez aritzea da lehendabizikoa, esango nuke, bizitzaren arlo guztietan».

Ni ere hartzen nau krisi existenzialak zenbait pertsona krisi existenzialak edukitzen ikusten dudanean; "nola dira gai hain memoria laburra edukitzeko? Nola espero zuten beren buruari krisirik sortu gabe kontraesanak saihestu, tristurei gainetik salto egin, psikopatatu... eta doan ateratzea?", berez, atera zaie, berez, badute nolabaiteko arrakasta, itxuraz: itxura ona dute, arropa berria erabiltzen dute, nortasuna kapritxo ingeniosoz apain dezakete ("ezin ditut jasan hain kopa lodiak", "nik beti oihalezko musuzapiak", "nola hondatu daiteke horrela arraina"...). Gertatzen da ezin dutela atzera begiratu bat-batean konortea galdu gabe. Gertatzen da bakardade zeken horrek biktimak uzten dituela bidean. Kontua da, besteok, batzuk-batzuk, gogoratu egiten garela. Orduko kretinoak zarete. «Zeure buruarekin gezurretan ez aritzea da lehendabizikoa, esango nuke, bizitzaren arlo guztietan», dio Draghik, Europaren krisia existenziala dela azpimarratzeko, eta behar duena dela, fun-tsean, zera... diru publikoa.

Duela urte batzuk existenziala zen diru publikoa, diru publikorik ez gatatzea, alegia. Gure eskubideen ertzetan itotzen ditugun guztiez gain, niri troika etorri zait gizona ikusita. Troika, Grezia, suizidioak... berak zuzentzen zuen banku zentrala guztiok itotzen, orduan (ere Alemaniak), inflazioak kezkatzen zuelako. Beste zera existenzial bat, konstituzio izeneko estafa bat saldu ondoren. Aurpegi batzuk ikusi orduko sentitzen dut hutsaltasun handi bat barnean: ez dakit bereizten den nirea (berak adierazten didana: zu ez zara inor, ni naiz nor, eta nire fanatismo finantzieroa), edo berea (nola bizi daiteke bat hain ez-pertsona izanik), edo gurea (nola oraindik erabiltzen dugu Europa, erabiltzen dugu konpetitibo, erabiltzen dugu "etorki-zunerako prestatu" presente kriminaletatik). Europa aspaldi hil zen. Merezi duelako (ez existitzea). ●

ADUR LARREA
www.adurlarrea.com



Ikasteko teknika desegokiak erabiltzen dituzte gazteek

MIKEL GARCIA IDIAKEZ

Bitxia da, “ikasten ikastea” konpetentziaren garrantzia nabarmentzen da azken urteetan, baina ikasleen %78k dio inork ez diela inoiz ikasten irakatsi, inoiz ez dietela azaldu zein teknika eta metodok funtzionatzen duten hobeto jakintzak behar bezala barneratzeko. Hala dio uda honetan kaleraturiko ikerketa batek, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako Kataluniako 27 ikastetxetako 3.414 ikasleren artean egina.

Azterketarako gutxi falta denean, lezioa buruz ikastea, memorizazio hutsa. Horra gazteek gehien erabiltzen duten teknika, inori arrotza egingo ez zaiona. Metodo hau eraginkorra izan daiteke epe motzean, baina ikasketa efimeroa da, aurrera begira jakintza hori ez baita ongi barneratzen, azkar ahazten du buruak inongo zentzurik eman gabe hitzez hitz ikasitakoa. Testu-liburuan azpimarratzea eta birritan irakurtzea ere teknika desegokitizat jotzen ditu ikerketak.

Zergatik erabiltzen dute nagusiki memorizatze teknika ikasleek? Ikerlariek badute hipotesi bat, egungo ebaluazio sistemari lotua. Sarri, azterketa gainditzeko (are, nota ona ateratzeko) nahikoa da azken egunetan lezioa buruz ikastea, beraz horixe egiten dute ikasleek, beste teknika batzuek lan handiagoa eskatzen dutelakoan. Zein garrantzi ematen diote (diogu) ikasgaia gainditzeari eta zenbat benetan ikasi nahi izateari?

Ikasketa sakonagoa eta etorkizunean mantenduko dena bilatzen badugu, beste-lako teknika batzuk zerrendatzen ditu ikerketak: nor bere apunteak hartzea, laburpenak eta eskemak egitea (baina aurrean lezioa ez duzularik, eta gero ea ongi egin dituzun egiaztatzea), irakurritako lezioaren adibideak eta analogiak pentsatzea, aurretik dakigunarekin loturak egitea (memoriatik berreskuratuz dagoeneko ditugun jakintzak), irakurritakoa gure hitzetan geure buruari eta beste norbaiti azaltzea, beste norbaitek lezioaren gaineko galderak egitea edota norbere buruari galderak prestatzea txarteltxoetan, etorriko den azterketaren simulakroa egitea... ●

ANALISIA



Monsieur tout le monde...

JENOFA BERTHOKOIRIGOIN

Mazaneko auzia dugu aipagai Frantziako komunikabideetan: emazte bat senarrak somniferoz drogatua, beste gizon batzuen hanken artean jartzeko, bortxatu zezaten. Hori hamar urtez eta hiru zenbakiz: 92 bortxaketa (gutienez), 72 gizonek eta 51 bortxatzaile epaiturik. Epaiaketa auzitegiko atea hetsirik egitea ez zuen onartu 72 urteko biktima Gisèle Pélicotek, eta hori “lotsak alde aldatu beharra duelako”. Baita beste bortxatu guztiekiko elkartasunez ere, hitza hartzearen urratsa errazteko asmoz. Bai dela ekarpen –eta erran gabe doa, indar– handia berea, zentzu anitzetan, baina bakarria hautatzekotan hau: bortxatzailea gure inguruko edonor izan daitekeela argira ekarri izana. Mugimendu feministak behin eta berriz errandakoa da, baina komunikabideen titularrak ikusirik, anitzentzako aurkikuntza edo kontzientzia hartzea izan da. Senar horri eta inguruko 50 bortxatzaileei begira jarri eta *monsieur tout le monde* [euskaraturik, Edonor Jauna] zirela izan da epaiaketaren lehen egunetako informazio nagusia. Suhiltzailea, kazetaria, familiako aita, erizaina, lagun zintzoa; Mazan herriaren inguruan bizi direnak... hots, “gizon arruntak”. Bai. Bortxatzailea gizon arrunta da, egunerokoa zintzoki daramana, bere inguruan ongi integraturikoa. Bortxatzailea ez da “munstro” bat, bortxatzailea gizon arrunta da. “Alterizaziorako estrategia” deitzen zaio horri, bi multzo sortzeari, gureaz desberdina den beste multzo bat sortzeari. Gureaz ezberdina den multzo horretan sartu ohi dira bortxatzaileak: marjinalak, “eroak”, kanpotiarrak... Baina ez. Gure inguruko gizon arruntak dira, nahi edo ez –edo hobeki erran: nahiz eta nahi ez ukan–. Hori aitortzen dugun egunetan hasten ahalko dugu bortxaketa kulturaren ahultzea –desagerpena?– ekarriko lukeen zinezko lanketa bat. Gisèle Pélicotek atea zabalik bideraturiko epaietak hori ekarri digu argira.

Bukatzeo, abisua: sare sozialetan hasten bazaizkit gizon batzuk idatzi honen kontrako harri jaurtiketetan, hemendik erantzuna: isil. Isil, ez dudalako jasanen. Idazten ari naizen momentu honetan berean bi ditut inguruan gaizki: bata, depresio bortitz batean, artatzaileek trauma bat identifikaturik, eta dakidala, iraganen gizon batek bortxatua; eta bestea, bortxatua, [oraingoz] bortxaketa publikoki salatu ez duena, baina hor dabilena, aitzina, iraganeko trauma horrek bizia okupatzen diola. Eta beste behin errepikatuko dut: bi kasu horietan, ez dira gau beltzean agerturiko munstroak izan. Ez, gure inguruko gizon arruntak dira. ●

204

lagunek beren buruaz beste egin zuten iaz Hego Euskal Herrian, datu ofizialen arabera. Suizidatzeko arriskua izan dezakeen jendearen jarraipenean jartzen dute indarra administrazioen protokoloek; Nafarroan, 163 suizidio kode aktibatu dituzte 2024ko lehen seihilekoan.

277.000

euroko isuna ezarri die epaileak Sidenor eta Cofivacasa enpresei, amiantoak hil zuen langilearen auzian. Forjas Alavesas enpresako garabilaria 2019an hil zen, arnastutako amiantoak eragindako minbiziagatik.



87

milioi urteko amonite fosil bat aurkitu dute Langraiz Okan. 60 bat zentimetroko diametroa du eta mendizale talde batek aurkitu du, Arabako herriaren inguruetan.

“Intsumisio jarrera bat izan behar dugu. Euskaldunok Euskal Herrian euskaraz mintzatzeko eskubide osoa dugula aldarrikatu behar dugu”

GORKA TORRE

Euskararen aldeko ekintzengatik zigortu du Gorka Torre Baionako auzitegiak.

2024-09-10

“ALDAKETA ERRADIKALAK BIDERATUZ GERO, BUELTA EMAN DIEZAIKEGU KLIMA LARRIALDIARI”

LURRAREN ALDEKO BATZARRA

Nazioarteko ikertzaile taldea.

2024-09-12

“Sexua, harremanak, Internet... Kontu horiek nahastea beti izaten da notizia goxoa”

IÑIGO ARANDIA

Kaixomaitia.eus harremanak aurkitzeko euskarazko webgunearen sortzailea. Irail amaieran itxiko dela iragarri du, ez badu inork erreleboa hartzen.

BERRIA (2024-09-13)

Mundu ikuskerAA



DIANA FRANCO EGUREN

Gizakiontzat ez da inoiz erraza izan lasai pentsatzeko denbora tarte luzeak hartzea, bizimodua aurrera ateratzearen ardurarekin bizi gara, bai geurea zein geure ondorengoena. Bizitzeko izan dugun aukera honetan, ahalik eta ongien nahi ditugu gauzak egin. Ardura horiengatik, beharbada, irakasle eta politikari askorentzat hezkuntzan teknologia sartzekak ikasleei lagunduko die mundua zelan funtzionatzen duen hobeto ulertzen eta bizitza on baterako aukera gehiago sortzen. Baina badira ikasleak ahaldunduko dituzten teknologiak eta ikasleak zapalduko dituzten teknologiak. Irakasleek eta gizarteak modu kritikoa hezkuntzaren digitalizazioaz hitz egiten dutenean, ardura horrekin egiten dute. Ez da teknologiarekiko beldurra.

Mikel Garcia Idiakezek ARGIAN kalera-turiko artikulu batean (*Ikasgeletan mugikorra erabiltzeari buruzko eztabaida prozesua iragarri du Jaurilaritzak*), politikariek diote irakasleak ez direla adimen artifizialaren beldur izan behar. Nik, guraso bezala, hezkuntza komunitatearen baitan ez dut beldurra ikusten, gauzak ondo egiteko ardura baizik. Irakasleak pertsonak hezten ari dira, hogeinaka bakoitzeko, geure gizartean bizitza on baterako pertsona bat heztea den prozesu konplexuarekin, eta hori egitura oso zurrin baten baitan, non ikasleek, hainbeste eta hainbeste berezitasunekin, eserita egon behar duten ordu asko.

Adimen artifizialak mundu ikuskerari forma eman diezaiokeela frogatzeko, Massachusetts Institute of Technology unibertsitatean debunkbot.com chatbota sortu dute. Oso proiektu interesgarria da, buloei eta konspirazio teoriei datuen bidez aurre egiteko sortua. Baina teknologia hauxe bera erabili dezakete eztabaidaren beste aldean daudenek ere, beste mundu ikuskera bat bultzatzeko. Panorama hau ikusita, gure ikasleek eta gizarteak irakasleengandik behar dutena ez dut uste denik pantaila bi-tartekari duen teknologia ororen erabilera ezagutzea, baizik eta ikasleak errealitateaz modu kritikoa pentsatzera hurbilduko dituzten inguruak sortzea, euren mundu ikuskera eraikitze harremanak eta eza-gutza sortzera bideraturikoa. ●

Alemania "komunistatik" eskuin muturrera

AXIER LOPEZ

Alemania ekialdeko indar politikoko indartsuena da AfD ultraeskuindarra. Horrela frogatu zen azken hauteskundeetan, Turingian gertatu zenez. Eskuin muturra boterera hurbiltzen ari da, eta, gainera, ekialdetik, Alemaniako Errepublikak Demokratiko ohiatik, Gerra Hotzeko Alemania "komunistatik". Leipzigeiko unibertsitateak egindako ikerketa baten arabera, Saxonia, Saxonia-Anhalt eta Turingiako landerretan, herritar bitik batek "alderdi indartsu" bat nahiko luke, alderdien "demokrazia pluralistaren" alternatiba gisa.

Batzuek gorakada hori lotu nahi izan dute asilo-eskatzaileak herrialdera "masiboki" iritsi izanarekin, eta, horrek, herritarren artean, ustez "alemaniar sustraia eta nortasuna galtzeko" eragiten duen "beldurrarekin". Horrek ordea, biktima, migratzailea, bere egoera makurraren errudun bihurtzen du. Beste batzuek, Mendebaldeko ikuspegi kapitalistari lotuta, errua biztanleena dela diote, RDA ohiko jendeak oraindik "demokrazia zer den" ikasi ez izanari egozten diote.

Baina klixeeetatik haratago, jendearen egunerokoa moldatzen duten baldintza sozial eta materialak begiratuta agian hobeto ulertu daiteke egoera. AfDk arrakasta izan du batez ere errenta apalenak dituzten langile eta autonomoen artean. 45 eta 59 urte bitarteko gizonek eta langabeek batez beste tekoaren gainetik bozkutzen dute AfD, adibidez.

Oro har, diru-sarrera urriak dituzte edo batez bestekotik gertu daude. Prezioen gorakada orokorraren ondorioz, egoera ekonomikoak okerrera egin du. Dena garestiago dago, eta hori ez da Alemanian bakarrik gertatzen. Elikagaien prezioek, bereziki,

AfDk arrakasta izan du batez ere errenta apalenak dituzten langile eta autonomoen artean

kalte handia eragiten dute etxeko ekonomian. Herri-sektore zabal horietan, inflazioa ari da soldata erreala murrizten, eta lan-hitzar-menak (langile gehienek halakorik ez badute ere) inflazio-tasaren oso atzetik geratzen ari dira. "Kasta politikoa" arbuioa orokorra da, Mendebaldeko herrialde askotan bezala. Ukrainako gerraren ondorio ekonomikoek eta Errusiaren aurkako zigorrek eragin zuzena izan dute soldatapekoen ekonomian. Gainera, sektore pribatuko soldatapekoen gutxiengo batek baino ez du lan egiten enpresa-batzordea duten enpresetan.

Beraz, ez da harritzekoa pertsona asko gero eta pobretuago eta, batez ere, frustratuago egotea perspektiba faltaren aurrean. *Arbeiterstimme* aldizkarian ondo azpimarratu dutenez, "hori are errealagoa da Ekialdeko Alemanian, zeinean pertsona asko dagoen 1990eko hamarkadan gertatutakoak kolpatu zuena, RDA ohiaren industria eskala handian desegin eta kapitalismo modu basatia sarrarazi zenean".

Horren aurrean, eskuin muturrak herritarren xenofobiarekin konektatu eta sustatu du. Migratzaileak, asilo-eskatzaileak eta errefuxiatuak gaitz guztien iturri bihurtu dituzte. Eta horren itzalpean ezkutatzeko AfDk, alderdi ultraeskuindar guztiek bezala, politika guztiz neoliberal defendatzen duela, bere boto-emaile gehienek interesen aurkakoa. ●

Alberto Fujimori Peruko diktadore ohia hil da: zein zen eta zer egin zuen?

 URKO APAOLAZA AVILA

Bere agintaldian egindako krimen ugariengatik eta ustelkeriengatik zigortua, Perun esku gogorra erabili zuen Fujimorik 1990eko hamarkadan. 87 urterekin hil da Keiko Fujimori politikari ultraeskuindarraren aita.

Liman hil da Alberto Fujimori minbi-ziak jota, irailaren 11n, kartzelatik atera eta bederatzi hilabetera. Bere alaba Keiko Fujimorik eman du horren berri. Fujimori historia liburuetan geldituko da Perun 1992an auto-kolpe bat eman eta herrialdean esku gogorrez agindu zuelako. Urte horietan militarrek giza eskubideen urraketak larriak egin zituzten, eta diktadoreak bere inguruko politikarien artean ustelkeria sare handi bat sortu zuen.

2000. urtean ustelkeria kasuak argitara eman zirenean, Fujimorik ihes egin zuen, lehenik Japoniara eta gero Txilera. Baina urte batzuetara estraditatu izan zen eta gizateriaren kontrako krimenengatik kondenatu zuten 25 urteko espetxe zigorrera. Horietatik hamalau Barbadilloko “presidenteen kartzelan” konplitu eta gero, duela bederatzi hilabete Peruko egungo presidente Dina Boluarte indultu “humanitarioa” eman zion. Amerikarteko Giza Eskubideen Auzitegiak ebatzi zuen presidente ohia aske uztea “akatsa” izan zela.

12 MILIOI PERUTAR POBREZIAN

Fujimori 1938an jaio zen japoniar etorkinaren familia batean. Perun nikkei deitzen diete japoniar jatorriko herritarrei, horietako asko XIX. mende amaieran iritsi ziren herrialdera eta laster hiri handietan ezarri ziren merkataritzan aritzeke. Ingeniaria eta unibertsitateko erretore izana, mezu teknokrata eta aldi berean hizkera xehea erabilia irabazi zituen 1990eko hauteskundeak, Mario Vargas Llosa neoliberalaren aurrean.

Agintea hartu eta berehala neurri gogorak ezarri zituen krisi ekonomikotik ateratzeko, fujishock bezala ezagun egin zirenak -AEBetako eta Japoniako gobernuek maileguak emateko ezinbesteko baldintza bezala jarri zuten erreforma hori-



Horien ondorioz, oinarrizko lehengai batzuen prezioa lau aldiz garestitu zen egun batetik bestera eta perutarren %57 erabateko pobrezian murgildu zen, ia hamabi milioi biztanle. Pribatizazio basatiei ere ekin zion, baina horiekin lorturiko milaka milioi euroak segituan gastatu zituen estatuak.

KONGRESUA DESEGITEA

1992ko apirilaren 5ean presidente perutarrek telebista bidez iragarri zuen Diputatuen Kongresua itxi eta desegitea erabaki zuela; horretarako indar armatuen laguntza zeukan. “Autokolpe” horrekin, modu autoritarioan agintzeko aro berri bati ekin zion, Sendero Luminoso talde armatuaren kontrako borroka aitzakiatzat hartuta.

Urte horietan militarrek giza eskubideen kontrako krimen larriak egin zituzten. Tokiko gobernuetan esku hartu zuten, kazetariak bahitu eta opositorak hil zituzten. Sarraski ezagunenak La Colina talde paramilitarrak egin zituen 1992an, Pativilcan eta La Cantutan.

Fujimorik zientoka “lege berezi” onartu zituen bere agintaldian. Tartean, nekazarien eta indigenen artean esterilizazio behartuak bultzatzen zituena. Ustez, helburua zonalde pobreetako jaiotza kopu-

rua murriztea zen eta zenbait kalkuluren arabera 300.000 emakume eta 22.000 gizonezko baino gehiago antzutu zituzten modu horretan. Kasuak auzitegiatan amaitu zuen azkenean.

1993an konstituzio berria onartu zuten Perun eta horrek bidea ireki zion Fujimoriri berriz hautatua izateko. Botere itzela hartu zuen orduan, ondoan Vladimiro Montesinos aholkulari politikoa eta militarra zuela. Horrela sortu zuten ustelkeria sare ikaragarri bat, droga trafikoa ere tarteko.

1996an narkotrafikatzaile ezagun batek epaiketa batean egindako deklarazioek piztu zituzten alarma guztiak: esan zuen Montesinosi hilabetero 50.000 dolar ematen zizkiola Kolonbiara kokaina eramaten uzteagatik.

2000. urterako Fujimoriren popularitasun apurra erabat zikinduta zegoen, hauteskundeen testuinguruan martxa jendetsuak egin ziren bere kontra herrialdearen Suyo edo antzinako Inken inperioko lau puntu kardinaletatik. Gainera, telebistaz zuzenean eman zuten Montesinosen, bere eskuin eskuak, transfuga bat nola sobornatzen zuten.

Hori izan zen Fujimoriren ihesa eragin zuena, eta bere akabera ekarri zuen azken tanta. ●

SAGUZARREN OSASUNAK GURE OSASUNA BABESTEN DU, EZUSTEKO MODUAN

Ameriketako Estatu Batuen ipar ekialdean azken urteotan maila handiko fenomeno batek eragin garrantzitsua izan du osasun publikoan, eta basa animalien osasunaren garrantzia oroitarazten du. Argitaratu berri den ikerketa baten arabera, gertaera hori eta sortu dituen ondorioak maila handiko esperimendu bat bezala izan dira, eta balio izan dute oroitarazteko mundu globalizatu honetan hobe genukeela saguzarren osasuna babestu, gure osasunaren onerako.

 NICOLAS GOÑI

2006 urtean, Ameriketako Estatu Batuen ipar ekialdean –Ingalaterra Berriarri, New York estatuan eta Pennsylvanian– saguzarrak hasi ziren gaixotzen eta hiltzen, eritasun berri baten ondorioz. Sudur zuriaren sindromea deitzen zaio eritasun honi, eta ondoko batek eragiten du. 2006 eta 2018 urteen artean gaitz hori zabaldu zen eskualde hartatik mendebaldera, eta hamahiru urtetan Mississippi ibaitik mendebaldera ere zabaldu zen. Saguzarren artean inoiz ikusi gabeko hilkortasun tasak eragin zituen gaitz horrek, %73 inguruko hilkortasuna eragin zuen. Abiatu eta bi urte geroago jadanik harpe batzuetako saguzar populazioak %90 jaitsi ziren, eta kalkulatu dute 2012an sei milioi saguzar baino gehiago hil zirela. Hamabi saguzar espeziearen artean eragin zituen kalteak gaixotasunak eta horietarik bi desagertzeko zorian izateaz gain, bertze bi ere mehatxaturik daude.

Baina tira, zergatik hainbertze arduratu beharko ginateteke saguzarrez? Ados, espezie berezi batzuk babestu behar dira, desagertzeko bidean direla eta, baina funtsean bioaniztasun kontu horrek gure egunerokoari zer axola dio? Gainera gaitz horrek gizakiok ezin gaitu kutsatu, orduan zer?

Berez baliteke zoonosi horrek gure osasunarekin eta bizi baldintzekin uste baino lotura zuzenagoa izatea. Funtzari hurbiltzen joateko, oroitarazi dezagun saguzarrek gauero beren pisuaren %40aren heina intsektu jaten dutela. Honek eragin

oso handiak eta anitzak ditu inguruko ekosistemetan. Saguzarrak dauden oihan eta soroetan, erakutsia izan da intsektuen populazioen gorakadak mugatu egiten direla. Aldiz, saguzarrik gabekoetan, baldintza egokiak emanez gero intsektu biomasak zalu emendatzen ahal dira –batzutan ia bikoiztuz, hainbat zuhaitz espezie edota artoa kaltetu dezaketek marmalo edo sitsak kasu–, baita landareak kaltetzen dituzten ondoko biomasak ere. Datu horiekin hobe igartzen da saguzarren garrantzia: AEBetan izurrite honen ondorioz intsektuak biderkatu egin ote dira, eta bertako biztanleen osasuna kaltetu? Izan liteke, baina argitaratu berri den ikerketa batek erakutsi duena harago doa.

SAGUZARREN IZURRITETIK INTSEKTU-IZURRIRA

Irailaren hasieran *Science* aldizkarian argitaratu den *The economic impacts of ecosystem disruptions: Costs from substituting biological pest control* (Ekosistema hausturen eragin ekonomikoak: izurrien kontrol biologikoa ordezkatzearen kostuak) lanak ez du zuzenki erakusten AEBetan 2006tik igaro den saguzar hiltze masiboen ondorioz intsektu gehiago egon direla soroetan. Baina bai erakusten du saguzarrak masiboki hil diren barrutietan uztak kaltetu zirela –uztaren mozkina apaltzen zelako– eta intsektizida gehiago erabili zutela bertako laborariek,

beren soroetan intsektuek eragindako kalte gehiago ikusi zutelako, alegia. Barruti haietan, %31,1 igo zen intsektizida kontsumoa, saguzarrak hobe bizirauten zuten barrutiek alderatuta.

Baina denbora tarte hartan intsektizida kontsumoa ez zen izan igo zen aldagai bakarra: haurren heriotza tasa ere igo zen, %7,9 gehiago igo ere. Haurren heriotza tasa igo zen hasi zen pestiziden erabilera igo zen urte berean. Saguzar populazio osasuntsuak zituzten barrutietan, aldiz, denak berdin segitu zuen, ez ziren aldatu ez pestizida erabile- ra ezta haur heriotza tasa ere.

Saguzarrak desagertu ziren gunetan intsektizida erabilera eta haur heriotza tasa batera igo zirela baieztatzeko, ikerlariak kontuan hartu zituen eguraldiaren efektua, barruti bakoitzeko populazioaren adin banaketa eta laginen tamaina. Gainera, igo zen haur heriotza tasari dagokionez, faktore fisiologikoez bakarrik eragindakoa hartu zen kontuan, hau da, kanpo faktoreena (istripuak, homizidoak...) ez zen aldatu.

Esaerak dioen bezala, korrelazioa ez da kausalitatea, eta bi joera aldi berean gertatzeak ez du baitezpada erran nahi batetik bertzea eragiten duela. Halere, ez da kutsadura kimikoa eta haurren heriotza tasa lotzen dituen lehenbiziko lana, eta aldi bereko igoera hori seguruenik intsektizida horien erabilerekin igoerari loturik dago, bertze azalpen sinesgarriagorik asmatu



WIKIMEDIA

MYOTIS LUTIFUGUS ESPEZIEA

Saguzar horren populazioak gogor jo ditu sudur zuriaren sindromeak. Zoonosi horren zabaltzearekin batera intsektizida erabilera emendatu zuten Ameriketako Estatu Batuetan, osasun publikoaren kalterako.

ezean. Kasu honetan, korrelazioa ez da kualitatea ere, eta ikerketa honen emaitzek ez gindukete harritu beharko. Bat Conservation International (Saguzarren Kontserbazioa Nazioartean) GKEko zientzialari nagusia den Winifred Frickek dio ahoa bete hortz gelditu zela emaitza horiek ikustean.

EKOSISTEMEN OSASUN GLOBALA

Animalien eta gizakien osasunak lotuak direla ohartarazteko eta adierazteko kontzeptua dugu "Osasun Bakarra" (ingelesez, *One Health*), 2000ko hamarkadaren hasieran erabiltzen hasitakoa. Osasunaz harago, gizakiak eta animaliak bizi diren ekosistemak elkarren artean lotuak direla azpimarratu nahi da nozio horrekin, hots, giza osasunak, animalien osasunak eta ingurunearen oso-

tasunak bat egiten dutela. Animalietan ageri diren eritasun berriak gizakiari transmititzen ahal direla izan da kontzeptu honen foku nagusia. Berriki azkarrago zabaltzen hasi den T-baztanga, adibidez, baso-soiltzearekin lotu dute aditu batzuek, oihan moztu berrietan animalia kutsatuak aurkitzeko aukera gehiago dagoelako, edo bertatik ihes egiten duten animaliak gizakien bizitegiara hurbildu daitezkeelako. Ipar Amerikako saguzar horien kasuan, halere, kontua ezberdina da, sudur zuriaren sindromea bera ez baita gizakientzat kaltegarria, baina bai bere zeharkako ondorioak, desagerturiko saguzarren lana ordezkatzeko intsektizida gehiago erabiliz gero.

Azpimarratzekoa da sudur zuriaren sindromea ez dela Ipar Amerikan ber-

tan sortu, eritasun hori eragiten duen onddoa luzaz Europan egon baitzen Atlantikoa gurutzatu aurretik –bortz mende lehenago Kristobal Kolonen jarraitzaileek hemengo gripea, elgorria eta bertzelakoak jatorrizko amerikarrei ekarri zizkietenean bezala, heriotz mabisoak eraginik–.

Baina gaur egungo AEBetan bertan, saguzarren gaitz hori zabaltzen ari da ere Appalache mendietan ibiltarien bideetatik. Gizakia izan daiteke beraz saguzarren gaitzaren barreiatzaile, batez ere gizaki bidaiari eta mendizalea. Honek erakusten digu ekosistemaren osasuna ez dela bakarrik tokian tokiko zaindu behar, eta mundu globalizatu honetan gure mugimendu guzietan dugula ardura. ●




ZINKUNEGI
OPTIKA

Hernani 23 · 20004 Donostia

T. 943 420 624

zinkunegioptika.com



José Manuel Uriagereka

FRANTZISKOTARRA HEGO KOREAN



KOREARA JOAN GINENOK EUSKARA EDERTO KONTSERBATU DUGU



Bermeon jaioa, frantziskotar eginik Hego Korean egin zuen bizimodurik gehiena, 40 urte. Sasoi batean mutil-koskorretan askok egin zuena egin zuen, komentura bidea hartu. Gero, handik mundura jauzi egin zuen Uriagerekak, bestelako hizkuntza eta kultura arrotzetara.

 MIEL. A. ELUSTONDO  ZALDI ERO / ARGIA CC BY-SA

Ez zara 84 urte bete zaharra...

Irailaren 4an bete nituen! Zelan nagoen galdetzen didate denek. “Egon, ondo. Ibi-li, txarto!”, esaten dut nik. Kar, kar... Bermeon jaio nintzen 1940an, bost seme-alabako familian. Gu izan ginen mutil bi eta hiru neska. Kale-baserrian bizi ginen, Errene-zubin. Orain ere hortxe da kalea, baina dena etxez beteta dago. Gure denboran gure baserria zen hango etxe bakarra. Aitak barrilak egiten zituen, arrainerako-eta. Matsorri esaten zioten, eta *Matsorri* gara gu, gure etxean mahasti handi bat geneukalako. Jakina, mahatsak mahats-orriak dauzka, eta hortik gure

ezizena. Gure aitak txakolina egiten zuen urte guztirako, apurka-apurka edateko.

Senideetan zenbatgarrena izan zinen?

Lehenengoa, zaharrena... eta gure aitaren disgustua Arantzazura [fraide ikastera] joan nahi nuela esan nionean! Disgustu itzela! Amak bestela erreakzionatu zuen: “Jaungoikoaren borondatea bada... egin dezala!”, esan zuen. Nik ez nuen hartarako pentsamendurik ez ezer, baina halaxe! Fraideetara etortzen ginen eskolara, eta behin, hantxe, fraide bat etorri zitzaigun gelara. Jon Zubieta zen. Arantzazuren gainean berba egin zi-

gun: “Fraide ikasketak... Leku ona Arantzazu... Futbola, pilota... Etorri gura du inork? Altxa eskua etorri gura duenak”. Eta eskua altxatu nuen, beste hiru edo lau lagunekin. *Ezkerti*, *Sanpedro*, Barandika... haiek ere eskua altxatu zuten.

Eta Arantzazura.

10 urterekin sartu nintzen hara. Hasieran 31 ikasle izan ginen, eta gero bostek hartu genuen apaizgoa. Askok irten egin zuten, edo etxera bidali zituzten, han egoteko borondatea ez zutelakodedo. Estudiatu ere egin behar zen han! Adibidez, nire kurtsokoa izan zen Txas-



José Manuel Uriagereka Bilbao

BERMEO, 1940



Arantzazuko bidea hartu zuen 10 urte zituela, eta frantziskotar bizia egin du harrezkero. 1967an Hego Korea hautatu zuen destino, eta 40 urte egin zituen bertan, bateko eta besteko parroketan. Belarri apartaren jabe, organo-jole zaildua da, nahiz beste zenbait tresna jotzeko batera beldurrik ez den. Beirateak ere hainbat ditu eginak, Hego Korea-ko zenbait elizak ageri dutenez. Eta teknologiak ere ez du izutu: herrialde hartan egindako aldia jasotzen duen 400 bat argazkiko *powerpoint* dotorea da frogia.

ko [Pedro Anjel García Chasco. Ikusi ARGIA 2142 zbkia, 2008, ekainak 26]. Labrazakoa. Euskaraz ederto ikasi zuen hark! Beste bat, Miguel Noble, nafarra, Kaskagorri; orain Arantzazun dago. Hainbat estudiante ezagutu nituen: Iñaki Baztarrika, Manolo [Imanol] Urbieta, [Fernando] Mendizabal, [Luis] Villasante, Joxe Azurmendi, Joséba Intxausti, [Bitoriano] Gandiaga... Gandiaga! Espeziala izan da, hura bezalako poetarik ez dago... Estudiantek ginen denok, baina kurtso difereenteetakoak ginen legez, harremanik ez genuen.

Estudiatu ere egin behar zela esan diguzu. Dena ez zen futbola eta pilota.

Ez, bada! Eta latina, eta frantsesa... euskarazko eskolak ere jaso genituen han. Bertara joan nintzenetik, esango nuke! Pedro Anasagasti izan genuen irakasle. Bermeotarra zen hura, base-ri batekoa.

Musika ere ikasi zenuen. Organojole fama handia duzu...

Fama handia... Arantzazun, goizeko eta arratsaldeko otoitzetan organoa jotzen zen, tonu batean.

Eta tonu hari eusteko, bakoitzak bere jokoak egiten zituen, eta joko horiek eginez askatu nintzen ni organoa jotzen. Musika irakaslerik ez nuen izan, belarriari kasu eginez hasi nintzen, eta hala-xe ikasi nuen organoa jotzen. Hala ere, Arantzazura baino lehen, solfeo ikasten hasi nintzen Bermeon, Erauskin izeneko batekin, baina ez zitzaidan gustatu. Aitak hara botata hasi nintzen, baina Erauskin hain zen aspergarria, aste-bete egin eta esan nion aitari: "Ez noa gehiago!". Eta Erauskinen gure aitari, berriz: "Hau mutikoa ez bota berriro nire eskolara, ze ez dauka musikarako dohainik!". Eta orain Bermeon organoa jotzen nabil ni! Kar, kar...

Bizi osoan jo duzu organoa, eta flauta ere bai.

Askok gustatzen zitzaidan flauta! Haren soinu polit hori! Eta [Hego] Korean ere, beti horixe esaten ibiltzen nintzen, flauta ze gauza polita den, batek esan zidan arte: "Neuk emango dizut

bat!". Eta erregalatu zidan. Ze gauza eder! Txistua jotzen ere ikasi nuen, eta gitarra, eta akordeoia. Erauskinen musikarako dohainik ez nuela esan zuen baina, ez zuen asmatu! Solfeo ikasteak baino gehiago, belarriak lagundu dit niri. Entzun, eta jo, edo jotzen saiatu. Halaxe ikasi nuen.

25 urte arte egon ohi zen fraidea Arantzazun, apaiztu arteko ikasketak han eta hemen egiten: Arantzazun hasi, Foru, Zarautz eta Erriberrin segi, eta atzera Arantzazun zen fraidegaia, formazioa burutzeko prest... Zure kasuan, Oteiza apostoluak egiten ari zen garaia.

Bai, hantxe Oteiza apostoluak egiteko lanean. Hari begira egoten ginen. [Xabier] Eulateren beirateak-eta! Nik, esate baterako, Eulateren lanetik inspirazioa hartuta egin nituen beirateak Korean. Hala ere, beirateak egiten Donostiako pintorearen ondoan ikasi nuen. [José Luis] Iriondo izan zen (Donostia, 1931 – Bermeo, 2001). Bilbon egon zenean, moja batzuek beirateak eskatu zizkieten, eta ni ere Bilbon nintzen urte hartan, ondoan eduki ninduen, laguntzen. Halaxe ikasi nuen, eta egin nituen gero beirate haiek Korean.

Hego Koreak ikaragarriko aurrerakada egin du; asko estudiantuta heldu dira oraingo mailara"

Zeuk esan duzu, Korea. Apaiztu, eta Hego Korea hartu zenuen destino...

Baina hara joan baino lehen, urtea egin nuen Bilbon, eta gero hiru hila-bete Ingalaterran, ingelesez ikasten. Ascotten egon nintzen, zaldi-karrerak egiten diren horretan, komentutxo batean. Koreara joateko ingelesez ikasi behar izaten genuen. Derrigorra zen. Orduan ere belarriz ikasi nuen nik. Aitzina bazen galenazko irratia, eta nik ere halako bat eduki nuen. Gutxi entzuten zen, apurtu bat baino ez, eta siestan egiten nuen hura ipini. Ia ez zen entzuten, baina handixetik sartu zen ingelesa nire buru barrura. Subkontzientera.

Zer dela-eta aukeratu zenuen Hego Koreako destinoa?

Nire pentsamendua beti izan zen apaiztu eta gero Hego Amerikara joatea. Frantziskotarrok Kuba, Argentina, Paraguai, Bolivia, Uruguai... eta horietara joaten ziren, eta ni ere



horretan izan nintzen. Baina ordurako teologo ginela, fraide herbeheretar bat etorri zitzaigun, Korean frantziskotarren komunitatearen beharra zutela esanez, eta pentsatzeko, destina hartzeko garaian inork Koreara joan nahiko ote zuen. Herbeheretar hark Korea aipatu zuenean, orduantxe esan nion neure buruari: “Korea? Eta zergatik ez, bada? Goazen Koreara!”. Kar, kar...

Arantzazutik Koreara jauzi handia da...

27 urte nituen, eta jauzia itzela! 13.000 kilometro-edo, eta mundua zeharo diferentea, oso. Hala ere, hamar joan ginen hemendik, ez nintzen bakarrik. Euskaldunak ginen denak. Oñatikoa, Azkoitiko Garate, Abasolo Donostiakoa, Uribe Gernikakoa, Ikaztegiakoa bat ere bazen... Koreeraz eta euskaraz hitz egiten genuen bata bestearekin. Kar, kar... Frantziskotarrak hazten ari ziren, baina ez geneukan legez komentu bat guztiok han batzeko, bakoitza egon ginen parrokiak batean, jendearekin egoteko eta koereraz hitz egiteko. Ni, lehenengo Seulen egon nintzen urte bi, hizkuntza ikasten... Gero Jinjuko arrantza herrian egon nintzen bi edo hiru urte, eta gero beste herri batzuetan ere bai.

Zer zenuten parrokiako lana?

Meza esan, jendeari lagundu, haiekin hitz egin... Baina oso jende pobrea zen, eta haiek lan egiteko preparatzen hasi ginen. Dirua lortzen genuen hemen, eta han adreiluak, teilak eta holakoak egiten genituen. Edo mendi zati bat erosi genuen eta behiak-eta jarri genituen, jendeari lagundu ahal izateko... Gu hara joan ginenean jendeak egunean baten bakarrik jaten zuen, dirurik ez eta. Askotan, fideoa bakarrik. Arroza ere badute, euren oinarrizko janaria da, baina, behin baino gehiagotan, jendeari bisita egiten joan euren etxera, eta: “Egon apurtxo baten, aurreko etxera noa arrozaren bila, zuk jateko prestatuko dut”. Eta nik: “Eta zuek zer daukazue, bada, jateko?”. “Guk, fideoa”. “Horixe bera ondo da! Ekarri niri ere fideoa, asko gustatzen zait eta!”. Pobreak, oso pobreak ziren lehen.

Lehen? Eta orain?

Ikusi zelan dagoen! Ikaragarritzko arrerakada egin du. Asko estudiantu du hango jendeak, asko estudiantuta heldu dira oraingo mailara. Asko ikasten dute eskolan, eta asko unibertsitatean. Begiratu orain, hango ekonomia, hango nanoteknologia, ordenagailuak, au-



JOAN BERRITAN

“Zortzi hilabete zahar naiz Korean, laster bederatz; eta zer edo zer ikasi ahal izan dut denbora honetan, bai hizkuntzan eta bai herriaren jokaeretan. Behin, Seuletik hurre dagoen mendi baterantz egin nuen. Oinbide sakon batetik gora nindoala, han, bide-ertzean, mendiaren ostean, haizetik gorde-gordeta, Budisten tenplu bat, erreka baten ondoan. Tenpluari barrutik erretratu bat egiteko asmotan nengoe-la, galarazita zegoela jakin nuen. Hona hemen Korearen irudirik egokiena”. (Uriagerekak *Anaitasuna* aldizkarian, 1965eko apirila)

JAN, BITAN

“Azken urte bi honetan bere barrabaskeriak egin ditu sikateak hegoaldean, arrozik gehien hartzen den tokian; baina gobernuak lagundu du zer edo zer, eta ez beharra ez da hain txarra izan. Dena dela, gaur Seulera etorritz gero, gosearen arrastorik topatzea ez da gauza erraza, leku batzuetan pobre asko egon arren ere. Gaur arte eta oraindino gaur bertan ere, koreatar gehienek bi bider bakarrik jaten dute. (...) Esan beharrik ez dago, bietan arroza jaten dena, belarrez nahastuta, salda apur batekin”. (Uriagerekak *Anaitasuna* aldizkarian, 1965eko apirila)

Azken hitza

ETIKETAK

Bata bestearen atzetik datoz eta doaz beti belaunaldiak. Honenbestez, azken belaunaldia da *Matsorri*-rena, neska edo mutil-koskorretan komentura biga hartu zuenarena, bizia erlijioaren itzalean egin zuenarena. Beharrik, misiolari joan ziren asko, eta hemen galarazita zegoen mundua bizi izan zuten atzerrian. Bizi ahal izan ziren.



toak... Oso aurreratuta daude! Espainia ez, hura dago aurreratuta! Lehengoan irakurri nuen, AEBetik-eta Koreara joaten direla neska asko, aurpegia leuntzera-eta [kirurgia estetiko]. AEBetan karu da kirurgia modu hori, eta jendeak hegazkina hartu, Koreara joan, operazioa egin eta etxera itzultzen dira, operazioa eginda, beren herrialdean baino askoz merkeago.

Esan duzu “asko estudiantuta” heldu direla oraingo egoerara...

Bai, horixe egin dute: ekin, ekin eta ekin. “Ekina txarra da” esaten dute, baina ekin eta ekin, azkenean lortu egiten da gura zenuena. Eta olimpiadak izan direnean ere, hainbeste domina bildu dituzte! Esaten dute orduko presidentek [Park-Xung hee] bultzatu zuela aurrerapen hori. Diktadorea zen, baina hori egin zuen, behintzat. Gero, bere alaba izan zen presidente.... Gitarra jotzen irakatsi nion!

Eta zelan igaro zenituen diktadura garaiko borroka eta gainerakoak?

Guk ere manifestazioetan parte har-

tu genuen, hango jendearekin batera. Agintariek ere jakin zuten, polizia-edo esanda, eta gure fraide biri-edo bertan egoteko baimena normal eman beharrean, hainbat denboratakoa, bakarrik hil bi egoteko eman zieten. Halako kastigotxo jaso genuen guk ere. Baina ez ginen ibili Habanan-eta bezala gobernuaren kontrako jendea komentuetan ezkutatzeko, orduko denboran ere parrokia gutxi eduki genituen eta. Modurik ez genuen inor etxean gordetzeko.

40 urtean batere etorri zinen Euskal Herrira?

Bai. Lehengo, hasi ginen etortzen bost urterik behin. Eta bost hilabete egoten ginen hemen. Hiru edo lau bider etorri nintzen horrela eta, behin, esan nion hango probintzialari: “Bost urterik bost urtera barik, hobeto dugu hiru urterik hiru urtera joan, ze bost hilabete han, ez dakigu zer egin ere!”. Eta horrela kanbiatu genuen: hiru urterik hiru urtera etorri, eta hiru hilabete egoten ginen hemen. Askoz hobeto.

Gurasoak hiltzean ere etorri ohi ziren erlijiosoak Amerikatik...

Bai. Aita hil zenean, esate baterako, berandu zen etortzeko, ez zidaten denboraz jakinarazi. Amaren kasuan, oster, hil eta egunean bertan jaso nuen abisua, zapatuan, eta domekan abioia hartu eta etorri ahal izan nintzen. Eta ikusi nuen. Hilda, baina ikusi nuen, eta neuk egin nuen irteera-meza. Bertsoa ere kantatu nion: “Sollubepeko Larraurian baserrian jaio zena / seme-alaba

denen artean... ona ta fina izan zana / gauden guztiok hemen utzita joan jaku Jaunarengana / bizi barrian izan daizula bakea ta zoriona”.

Eta 40 urte han egin eta etorri zinen, betiko.

Han frantziskotarrak asko gehitu zirela ikusi nuen, han ezertarako faltarik ez nuela egiten, eta hemen, berriz, jendea falta zutela. Eta 2007an etorri egin nintzen. Bermeoko aita Adrianek [Zabalgoeaskoa] probintzialari eskatu zion: “Mesedez, Matsorri Bermeora ekarri!”. Kar, kar... Gustura etorri nintzen, neure herria da-eta Bermeo! Askok kanbiatu da, izugarri. Euskara bera ere bai. Koinatuak ere esaten dit: “Zu Korean egon zara 40 urtean, eta Bermeo-Bermeoko euskara egiten duzu oraindik”. Lehengo modukoa, gura du esan. Neu ere harritu egiten naiz nola ez naizen ahaztu hemengo berbaeraz. Bada beste gauza bat sentitu dudana, eta da gu euskaldunok Koreara joan ginenok, euskara ederto kontserbatu dugula. Ostera, Hego Amerikara-eta joan zirenak erdaraz etorri ziren berbetan.

Etorri eta zertan hasi zinen Bermeen?

Komentuan laguntzen. Koreatik etorri eta, batzuetan, organoa jotzeko eskatzen zidaten. “Nik orain organoa jo? Baina ahaztuta daukat-eta hemengo organoa jotzea!”. “Joko duzu!”. Aita Aristi zen hemen organista famatua, eta berak esaten zidan: “Matsorri, gura dut Zarautzera [frantziskotarren komentua] joan, eta joko duzu San Antonio egunean?”. Eta horrela.

Organoa jo, mezak eman Mañun eta Almiken, eta horrela.


Hilerri guztiz berezia da Mañukoa Solluben. Hantxe da ehortzia Elbira Zipitria, gerra ondoko lehen andereñoa Donostian...

Hori ez dut jakin nik! Ostantzean, kanposantu txiki polita da Mañukoa...

Aizu, Matsorri, eta berriz jaioko bazina, jasoko zenuke esku Arantzazura fraide joateko?

Berriz jaioko banintz?... Besterik jakin barik?... Ez dakit, bada. Orain dakidana jakinda... ●





Pentsamendu askeak

Gauzak ez dira horrela, gauzak horrelaxe daude. Esaldi hori iltzaturik geratu zitzaidan Gorka Urbizuren diskoa osorik eta patxadaz entzun nuen. Uste nuen aurkikuntza itzela egin nuela identifikazio horrekin, inozentea ni! Gerora ohartu naiz, *merchandising*-era-ko leloa izateaz gain, jendartean makina bat hausnarketarako parada eman duen altxor paregabea ere badela. Norberak izan ditzakeen zailtasunen edota arazoan aurrean, Urbizuren hitzek aldaketarako bideak egon daitezkeela iradoki didate, itxaropenaren atea zabalik dagoela, alegia.

Mundu globalean nozitzen ari garen al-daketa konplexua BANI (ingelesezko *brittle, anxious, nonlinear* eta *incomprehensible* hitzen laburdura) paradigma gisa definitu zuen Jamais Cascio ikertzaile estatubatuar-rrak; hots, hauskorra, presaz dabilena, ez lineala, eta ulergaitza den mundu baten gisan. Egoera horrek, norbanakoongan hamaika eragin izan ditzake, zalantzarik gabe. Ez da harritzekoa, beraz, zaugarri, galduta, noraezean, eta hainbatetan gustura bizitzeko alternatiba garbirik ez ikustea. Hori gutxi balitz bezala, propagandaren industria masiboa pertsonak banatzera zuzenduta dago, kontsumo indibidualera bultzatzen du. Nolabait, munduaren binomioa zu eta zure mugikorra, zu eta zure saltoki handia, zu eta zure te-lebista izango balira bezala. Sistema hege-moniko globalak ez ditu langile antolatua-ki nahi, ez du berdinen arteko elkarketarik nahi. Aitzitik, banatuta nahi gaitu, gauzak horrela direla etsita.

Zientziatik atera ohi diren ondorioetatik distantzia askora egon ohi dira erabaki politiko asko. Eta aldi berean, erabaki horietatik hainbat eta hainbat, merkatuaren interesen pean

Hausnarketa hauei guztiei jarraituz, Noam Chomsky eta Pepe Mujicaren arteko elkarrizketa hezurmamitzen duen libururekin topo egin nuen. Akademiko estatubatuarra da bata, politikari urugaitar ezaguna bestea, ezkertiar eta aktibistak biak. XXI. mendean bizirauteko hausnarketak biltzen dituen harribitxia aurkeztzen du 2012ko Mexikoko ikasle mugimenduaren fundatzaile izan zen Saúl Alvérezek. Iraganeko eta egungo erresistentziaz ari dira, iraganeko porrot eta lorpenez, eta baita etorkizunean beharko ditugunez ere. Horien artean, bada hamaika pasadizo eta ideia josten dituen bat: elkarlanaren aldeko eta berekoikeriaren kontrako gatazka kulturalaren beharra, hain zuzen ere. Horrek



IRATI LABAIEN EGIGUREN
EHU-KO IRAKASLE ETA
IKERTZAILEA

ezkerreko planteamenduen berrikuspe-
na eskatzen duela diote. Nolabait, his-
torikoki nostalgiara jotzeko tendentzia
duen ezkerrek, etorkizuneko erronkak
epe luzera begiratu eta ekiteko beharra,
porroterako beldurrik gabe.

Ziur naiz, emakumeon bozkatzeko es-
kubidea lehen aldiz aldarrikatu zutenek
hainbatetan entzungo zutela diskurtso
bera: gauzak horrela dira. Baita herritar
afroamerikarrek euren eskubide zibilen
aldeko mugimendua indartu zutenean
ere. Ezagunak diren adibideez gain, txi-
kitik erresistentzian dauden bestelako
zerrenda luzea bezain zabala da; baita
gurean ere. Pribilegiaduna beti izango
da aldaketarekiko zurruna, beti izango
du immobilismorako diskurtso landua.
Pribilegioaren beste aldean dagoenaren
lana izango da aldazina omen denaren
diskurtsoa deseraikitzea. Eta hori, ezba-
irik gabe, jardunbide kolektiboa izango da.

Liburuan hainbatetan azpimarratzen
den gisan, zientziatik atera ohi diren
ondorioetatik distantzia askora egon
ohi dira erabaki politiko asko. Eta aldi
berean, erabaki horietatik hainbat eta
hainbat, merkatuaren interesen pean.
Zentzu horretan, gizarte informatu eta
konprometitua elkartu eta martxan jar-
tzeko deia hainbatetan errepikatzen da.
Maiz, aldatu ezin diren gauzetan ari ga-
rela esango digute, utopiez beteta du-
gula burua. Baina geure aurretik bidea
ireki diguten erreferenteek esango ligu-
keten bezala, ez ditzagun pentsamendu
askeak besteen mugekin giltzapetu. ●

Palestinak munduari dakarkiona



KATIXA DOLHARE-
ZALDUNBIDE
LITERATUR ZALEA



PAULA ESTÉVEZ

Ezaguna da enpresa frantses batzuek (Thales, Airbus, Dassault) aspalditik laguntzen dutela Israel haren ekipamendu militarra osatzen. Disclose elkartearen inkesta baten arabera, berriz, Frantziako Gobernuak berak hornitu dizkio osagai elektronikoak Israeli, Gazako zibilak erailtzeko baliatu droneak egiteko. Eta, hori gutxi balitz bezala, azken egun hauetan, oraindik plazaratzekoa den gobernu txosten batean oinarrituta, Mediapart hedabideak salatu du Frantziak 2023an 30 milioi euroko material militarra saldu eta eskura eman ziola Israeli, besteak beste, zartagailu, torpedo, suziri eta misilak. Bizkitartean, armen komertzioari buruzko ituna izenpetu zuen Frantziak, zoinak debekatzendion armak saltzea, sumagarri baldin bada gerla krimenak egiteko edo zibilak erailtzeko erabiliak izan direla. Frantziako Gobernuak segurtatzen du xede defentsiboa daukatela azkenik saldu arma haiek, eta ez du argitu nahi Gazan iaz abiatutako genozidioa aitzin ala ondolik iragan den tratua.

Harritzerik ez da, maleruski. Badu sei mende bederen jakin badakigula haltzak ez duela bihotzik, ez gaztanberak hezurrik, boteredun handiak gezurtariak di-

rela, edozein erregimen politikotan. *Le courrier de l'Atlas* aldizkarian egin elkarritzeta batean, Mohamed Najem klarinetista palestinar bikainak dio: "Musika zintzoa da, politika ez bezala". Hain zuzen ere, Najemek bigarren diskoa ateratu du aurten, *Jaffa Blossom* ("Jaffaren loratzea"), aitaxiren omenez. Aitaxi kanporatua izan zen Jaffatik 1948an eta izugarri mingarri izan zitzaion bizi osoan sorterriari eta haurtzaroari pentsatzea. Biloba, berriz, Frantzian dago deserrian, eta saiatzen da palestinar zauriak musikaren bidez ezagutarazten. Haren musika, haatik, ez da negargarria: azentu malenkoniatsu batzuk izan arren, airosa eta umoretsua da. Baigorriara jin zen, 2016an: *Floor No. 4* lehen diskoak piezak jo zituen eta han ginenok harrapatu gintuen bere mundu aberatsean.

Ezen, palestinar sortzaileengandik ikastekoa dugu egia: hotsa eta ardailen gaintetik, gureganaino heldu zaizkigu, hala ere, musikariak, argazkilariak, margolariak, zizelkariak, poetak. Iaz, 2023ko martxoan, Gazako inbasioa aitzin, Parisen dagoen Mundu Arabiarreko Erakundeak obra kolektibo mamiatsu bat ateratu zuen, Seuil argitaletxean: *Ce que la Palestine apporte au monde*

("Palestinak munduari dakarkiona"). Liburuaren sarreran, haxe dio C. Ayadek, "Palestinak denengandik abandonatua dirudien orduan": "Gaizki doan munduaz ari zaigu Palestina. Palestina jadanik bizi da mundu alienatu, zaindu, kaiolatu, basatu, neoliberalizatu batean". Ehun bat artistak eta adituk paratu liburu zoragarri horri segida emateko, izenburu bereko ekitaldi programa aberatsa prestatu zuen erakundeak, eta ondolik online ezarri, palestinar artistei utziz lekua.

Errazki eskuragarri ditugu, bestalde, *Maiatz* aldizkaria eta Susaren Armiarma guneari esker, I. Bordak, J. Sarrionandiak, K. Izagirrek, Sabaietan Ke-k eta X. Bovedak euskaratu Mahmud Darwish-en hainbat olerki, bai eta I. Aiestaran Urizek gurerat erakarri Ashraf Fayadh-en ere, ARGIAren blogean. Eskupean daukagu oraino A. Lukuren *Falestina* antzerkia (*Garazin antzerki 3*, Maiatz).

Badugu hor, irakasleok (gobernu frantsesak legez "eredugarri" izatera behartzen gaituen irakasleok), klasean lantzeko euskarri sorta bikaina, ikasleekin "egiaren sentsu berriaren bila" ibiltzeko (*Hiltzen dira txoriak Galilean*, Darwish, I. Bordaren itzulpena). ●



ITZIAR MORENO
EUSKAL PERTSONA
POLIFAZETIKOA

Lurraren altxamenduak

Estatu poliziala kanpora! Abesten dute negar-gasen leherketen artetik. Gaztetxo konprometituak, amaxi militanteak, aurpegi estaliak, edo ez, pailazoak, musikariak, sindikalistak eta politikariak, kaskodun medikuak, laborariak traktore gainean... Landa-eremuan zein hirian, Frantziako Polizia armatuaren aurrean harro, helikopteroen jaurtigailuen azpian ausart, txaloka eskuak gora altxatuta oihu ozenak aireratzten dituzte: *izan gaitezen denak antifaxistak!*

"*Les soulèvements de la terre*" Frantziako tokiko borrokak sartzeko ahalgina da, lurraren banaketa zabalagoa bilatzeko eta erresistentzia bultzatzeko. Natur-guneak defendatu nahi dituzte espekulaziotik, porlanetik eta industrializaziotik. Mugimenduak, era berean, trantsizio ekologiko eta sozialaren beharra aldarrikatzen du, nekazaritza iraunkorraren eta baliabide naturalen zaintzaren alde. Egiatzko indar harremana ezarri nahi dute, Ama Lurra landa-industria eta merkatarri harrapakariengalmenetik erauzteko. "Hondamendi ekologikoa eta prekaritatea zerumuga bakartzat hartuta hazitako gazte matxinatuak gara", diote.

Besteak beste, borrokatu dira lan legearen, Poliziaren indarkeriaren, arrazakeriaren, sexismoaren eta klimaren apokalipsiaren kontra. Notre-Dame-des-

Landesen aireportuaren aurka kanpatu, uharken kontrako Uraren Hiria eraiki, A69 autobidea eteteko harresia altxatu, porlana ustiatzeko usina erraldoiak barrutik boikotatu, merkataritza gune erraldoiak eraikitzeko lurra okupatu... Herrietarrak dira, beren lurraldeari atxikiak. Nekazariak ere badira, eta salatzen dute Frantziak ez diela garrantzirik aitortzen. Beraiek, ordea, jendartea elikatzeko, Lurrarekin eta bizidunekin eguneroko zaintza harremana ezartzen dihardute.

Euren bitartekoak, ugariak: baliabide juridikoetatik ekinga zuzenetara. Gero eta leku eta jende gehiago batzen, hormigoien jaunaren aurrean, makroproiektuen aurka, zutik. Nonahi, beraien deialdiak eta erresistentziak biderkatu egiten dira. Eta dagoeneko hainbat garaipen ere eskuratu dituzte!

Gu gara, diote: zu, ni, zuek. Deia luzatzen diete borroken atomizazioaren, ekiteko zailtasunen eta jabeen irentsi-nahia aseeginaren aurrean isolatuta edota ezinean sentitzen direnei. Bistan da, bai, isolamendu hori apurtzen asmatu dutela; herri boterearen bilgune indartsu bilakatu dira, mundura zabalduz borroka eredu garrien irudiak, umorez, indarrez, Ama Lurraren erraietatik, konplexurik gabeko erradikalitasunez, txikien arrazoi handia lagun... Asko ikasteko bidelagunak, bai horixe. Altxa bedi lurra! ●

Aldairak



CASTILLO SUÁREZ
IDAZLEA

Etxez aldatzen naizenean, edo, areago, norbait etxetik joaten denean, oroiminak hartzen dizkit burua eta bihotza. Orduan hasten naiz zer gordeko dudana eta zer ez erabakitzen saiatzen. Izan ere, objektu guztiek lotzen gaituzte zerbaitetara, edo norbait ekartzen digute gogora; eta, beraz, objektu bat baztertzeak gertakari edo harreman bat baztertzea dakar, baina, batez ere, hura berriz bizitzeko aukera desagerraraztea. Diotenez, aldairak une egokiak dira itxaropena, usteak eta nahiak desagerrarazteko, aurrera egin eta non gorde

ez dakigun guztia botatzeko, suntsitzeko edo oparitzeko. Alabaina, eta kontrako espero genezakeen arren, aldairek urduritasuna eta sosegurik eza eragiten digute eta ez, ordea, lasaitasuna eta ba-kea. Izan objektu edo pertsona, berdin gertatzen zaigu: ez du ezertarako balio oraindik botatzeko sasoian ez dagoena botatzeak. Maite izan ditugunak ere desagertu egingen dira gure baitatik egunen batean gudan ez ditugulako nahi, baina bizitzaren misteriorik handienetako da jakitea zergatik ezin dugun ahaztu, hain zuzen ere, ahaztu nahi dugun hori. ●

Bosgarren zutabea



JON ALONSO
ITZULTZAILEA

Erribera, historian, sekula euskalduna izan ote den; horra hor Nafarroan, duela berrogei urtetik hona, hainbestean behin errepikatzen den eztabaida bizantziarra (eztabaida bizantziarra: eztabaida alferrekoa, zeinean alde bakoitzak ezin baitzickio frogatu bere baieztapenak beste aldeari). Jimeno Juriok, ortodoxoa baina zentzudunak, hala adierazi zuen euskarari buruzko bere obra handian: “Ez dakigu, eta ez dugu frogarik *bai* esateko, ezta *ez* esateko ere”. Zeharkako argudioak eta frogak eman zituen, hori bai, bertakoa izan edo ez, XVI. mendean Erriberan euskararen presentzia handia izango zela baieztatzen.

Horrez gero, auzia argituko digun aurkikuntzarik ezean, Jimenok esan zuenetik haratago joan nahi izatea alferrik hitz egiteko gogoia baino ez da. Zientzia linguistikoa ikuspuntutik, mintzatzea mintzatzeagatik. Harritzekoa ere ez da; bere burua nabarmentzeko, jendea edozer eztabaidatzeko gauza da. Esaterako, ez al dabil hortik zehar kuadrilla bat, Lurra laua dela demostratzen saiatzen dena?

Erriberak ez baditu partekatzen Erresumaren erro euskaldunak bertako gainerako lurralde guztiekin, eta izaeraz euskalduna ez bada, orduan, zer da?

Hala ere, gaia astintzen denean, zientziaren, heterodoxiaren, arrazionalismoaren edo ospe oneko beste hitzen baten abaroan astindurik ere, ez da ezer demostratu edo frogatu nahi; besterik da hemen jokatzena. Eztabaidak erraiak mugitzen ditu –*Putxa Pamplona, Tudela kapital*–, egunkarietako orriak ziurtatzen, une bateko loria ematen, protagonismo nahiak asetzen, eta curriculumak

luditzen, zeina ezinbestekoa baita karrera profesionala *kintakolumnismo* politiko-linguistikoan oinarritu duen inorentzat. Izan ere, Erriberan euskara historikoki mintzatu ote den argitu ezinean, benetan inporta dena da Nafarroako zonifikazio linguistikoari eusten dion postura politiko hegemonikoari (ez heterodoxoari, preseski) lur bat ematea, argudio-bide bat eskaintzea.

Adi, ordea, ze iritsiko da eguna arrazoibideari buelta eman eta argudioa sudurpean eztanda egiten ahal zaiena. Erribera, Nafarroako mapan eremu txikia betetzen duen txoko maitatu hori, euskalduna ez bada, horrek ez die euskalduntasun zipitzik ere kentzen Erresumako gainerako lurraldeei. Eta aldiz, beren arrazoiak ifrentzuan dakarren galdera inplizituak zalantza handi bat pitzen du: Erriberak ez baditu partekatzen Erresumaren erro euskaldunak bertako gainerako lurralde guztiekin, eta izaeraz –Erresumako gainerako lurraldeak ez bezala– euskalduna ez bada, orduan, zer da? ●

FINAL-ZORTZIRENAK

LAZKAO

Irailak 21, larunbata, 17:00
Areria aretoa

ELGOIBAR

Irailak 22, igandea, 17:00
Herriko Antzokia

GBT24

GIPUZKOAKO
BERTSOLARI
TXAPELKETA
2024

www.bertsozale.eus/gipuzkoakotxapelketa
www.bertsosarrerak.eus



ARGIA EGUTEGIA 2025

Hurrengo urtean ere, egunero efemeride bat.

Herri xehearen historia ardatz hartuta, seigarren urtez ARGIAko egutegian efemeride historikoak landu ditugu. Historiografia ofizialak albo batera utzi ohi dituen pertsonekin, egungo mundua hobeto ulertzen lagunduko diguten gertaerak errepasatuko ditugu urteurrenak aitzakia hartuta. Eduardo Galeanok zioen bezala, "oroimen historikoa ez da iraganeko nostalgia hutsa, tresna bat da gaurko injustiziaren aurkako borrokan".

Orrien aurreko aldeetan, berriz, data, euskal izendegia, eguzkiaren eta mareen informazioa eta jai egunen erreferentziak -arrotzak direnak, hala zehaztuta gainera-. 2025 on!



Aurre-salmenta:

azoka.argia.eus (+34) 943 37 15 45

Haziak eta etorkizuneko auziak

Haziak nola egin azaltzen duen jakintza praktikoa eta hazietan datzan ikuspegi politikoa. Biak uztartu dituzte *Haziak* liburuan Miguel Arribas *Kelo*-k eta Marc Badal-ek. Hamaika auzi baitaude jokoan hazi bakoitzean: biodibertsitatea vs estandarizazioa, autonomia vs menpekotasun ekonomikoa, transgenikoak vs agroekologia... "Hazi kontrolatzen duenak elikadura kontrolatzen du eta elikadura kontrolatzen duenak herria kontrolatzen du", ohartarazi du Guy Kastler-ek, liburu honetarako propio idatzi duen artikuluan.

Horretaz guztiaz gain, haziak egitea landareen bizi ziklo ederra osorik gozatzea da, Dani Blancok 211 argazkitan jaso duenez.

 ESTITXU EIZAGIRRE KEREJETA  DANI BLANCO / ARGIA-CC-BY-SA

Neolitotik hona arteko gure aitoria eta batez ere amonentzat ohiko lana izan da uztaren zati bat hazitarako bereiztea eta gordetzea. Pixkanaka lan hori hazi-etxe gero eta handiagoen esku uzten joan da gure gizartea: egun, bederatzi enpresaren esku dago mundu osoan saltzen diren hazien %63. Monsanto xurgatua duen Bayer multinazionalak berak bakarrik hazi salmenta guztien %23 bereganatua du. Haziak egiteko lana alboratu dugunez, gaur egun, baratzea dutenen artean ere askok eta askok ez dute eza gutzen landareen helduaroa, izan ere, landare gehienak gazte direla ateratzen ditugu baratzetik, jateko. Denak gara eskolatuak baina biologian gutxi erakutsi digute landareek ugaritzeko dituzten sexu bidezko eta sexu gabeko ugalketa modu anitzez eta historiko klaseetan apenas aipatu dizkiguten landare espezie batzuk, gure herriaren biziraupenean funtsezkoak izan badira ere. Haziak egiteari utzita, autonomia

“Haziei garrantzia eman behar diegu, zeren eta han dago gure etorkizuna. Hori agroindustriak oso garbi dauka eta gu kontziente izan behar gara, burujabe izateko”



eta kultura galtzeaz gain, galdu dugu barazkietako askok dituzten lore ederrak kontenplatzeko plazera...

Haziak liburuak ematen dizkigu landareen ugalketa ulertzeko oinarriak, 60 landareen –barazki, sendabelar, lore eta hainbat zereal– haziak egiteko azalpen praktiko eta teknikoak, eta horre-

kin batera bitxikeriak, trikimailuak... Bertako barietateen berri ere ematen du, esaterako, Itoitzko urtegiaren borrokan Artozki herrian berreskuratu zuten kalabazinarena, urtez urte gero eta baratze gehiagotan eusten diotena. Pasarte historiko epikoak ere aurkituko ditugu, hala nola Leningraden, II. Mundu Gerran nazien armadak hiria guztiz setiatua zuela, nola nekazaritzako hazi aldaeren mundu osoko bilduma gordezten zuen Vavilov zentroko langileak gosez hil ziren, hazi tona horietatik ale bakar bat jan gabe, bazekitelako etorkizunean sobietar herri osoari jaten eman ahal izateko altxorra gordetzen ari zirela. Horrez denaz gain, liburu honek hazietan mundu mailan jokatzen ari diren auzien arrastoan jarriko gaitu: besteak beste, teknologia genetikoak nola ari den "bizitza patentatzen", multinazionalen sortutako hazi hibridoak nola ari diren bioaniztasuna murrizten... hori guztia hartu dugu mintzagai erreportaje honetan, liburuaren bi egileekin.



“HAZI BAT IRAGANA ETA ETORKIZUNA DA ALDI BEREAN”

Hazi bat zer den galdetu diegu bi egileei, eta honela aletu dute erantzuna, puntuka.

Arribas: "Nik ez dakit hazi bat zer den, baina gu baratzean hasi ginen, guretzat baratzea erresistentziarako gune bat zelako, kontsumitzaile huts nahi gaituen sistemari kontra egiteko. Eta haziaren ugalketak erresistentzia hori areagotu egiten du; autonomia ematen dizu, hazi-etxeen menpe ez egoteko. Ekintza politiko eta desobedientea da. Eta baita ere aukera ematen dizu zure landaketak gero eta egokituagoak izateko zure baratzeraren eta zure lan modura". Badalek jarraitu dio: "Agian badu beste zentzu politiko bat ere: komunitatea josten du. Indibidualki hazi batzuk egin ditzakezu zure baratzean, baina nolabait esparru kolektibora jo behar duzu. Bere garaian, auzoen artean egiten zen. Gaur egungo testuinguruan, Biolurrekoen artean elkartzen gara edo Alekakoen artean edo sare informalean...". Arribas bat dator: "Normalean landareak oso eskuzabalak dira eta sortutako haziak beti gehiegi izango dira autokontsumorako ari den baratzeazain batentzat; horrek behartzen zaitu beste baratzeazainekin antolatzea, elkartzea, trukatzera... hori oso polita da".

Ondoren, Arribasek beste erpin batek begiratu dio hazia eta komunitatearen arteko loturari: "Lehenago, haziak ba-

“Hazi bat iragana eta etorkizuna da, aldi berean.


Iragan horrek egoera klimatiko eta gertaera anitz bildu ditu, eta bertako barietateetan dagoen memoria hori guztia orain oso baliagarria da bizitzen ari garen klima krisi honetan gure elikadura sistema martxan jarri ahal izateko”



serritarren kulturaren muinean zeuden. Guk galdu dugu hori eta berreskuratu behar dugu, berriz kultura sortzeko. Artoa egiten dudak bakoitzean gogoratzen naiz nire hemengo bizilagun aiton-amonak nola hitz egiten zuten arto zuriketaz, eta zer garrantzia zuen beren ekonomian eta bizitza sozialean, eta nola joaten ziren auzolanera, nola ligatzen zuten eta

komunitatea josten zuten han...". Badalek jarraitu dio: "Bai, niri ere arlo kulturala interesatzen zait: nekazal bioaniztasuna eta bioaniztasun kulturala ezin dira banatu. Gaur egungo laborari zaharrentzat, haziak baliabide ekonomiko bat dira: hazia da ekoizpenerako balio duen zerbait eta balio ez badu ez dute erabiliko. Aldiz, guk beste harreman bat daukagu haziekin, gu beti ari gara barietate kontzeptuari buruz. Izan ere, XX. mendean, mende bakarrean antzinako barietate ia denak desagertu dira, hau da, biodibertsitate landuaren %75 galdu da, eta beraz, oraindik atzematen ditugun barietate zaharren haziak guk altxor modura bizi ditugu. Nolabait ondare bihurtzen dira hazi horiek guretzat eta batzuetan laborari zaharrek ere horrela ikusten dituzte, 'nire etxeko haziak' esaten diete, eta hazia etxekoa izateak beti izan du garrantzia".

Arribasek ekonomikoan jarri du arreta: "Guk komunitate bezala gure haziak eta gure ezagutza galdu ditugu, baina botere ekonomikoek ez dituzte galdu, zeren oso garbi daukate han dagoela funtsa. Eta hori da berreskuratu nahi duguna, baita begirada ekonomikotik ere. Liburuan aipatzen dugu Eduardo Galeanok kontatua zuen historia hori, nola esklabuek plantazioetatik ihes egiten zutenean soinean eramaten zituzten umeak eta haziak ilean gordeta, hori baitzen modu bakarra haien bizimodua





Egileen ibilbidea: a ze parea, igitaia eta bahea

Euskal Herrian egindako hazi ekolojikoak saltzen ditu Aleka proiektu kolektiboak, eta bertan duela zortzi urtetatik hazigintzan urte osoan lanean aritzen dena da Miguel Arribas *Kelo*, liburuaren egileetako bat. Liburuaren beste egileak, Marc Badalek, etxerako egiten ditu haziak bere baratzean, eta haziei buruzko dibulgazio lanean aritzen da. Bera da duela 11 urtetatik Cristina Enea fundazioko *Haziera* hazien artxiboko koordinatzailea.

Lagun zaharrak dira Arribas eta Badal, eta bitxia bezain polita da bien ibilbidea. Arribasek honela kontatu du berea: "Ni Madrilgoa naiz eta nahiz eta kalekumea izan, 22 urte ingururekin hasi nintzen baratzean hango proiektu kolektibo batean, eta han hasi nintzen agroekologia munduan murgiltzen eta haziari begia jartzen. Duela 16 urte etorri nintzen Euskal Herrira, zuzenean Beizamako Leunda Berri baserrira. Hemen antzeko proiektu bat sortzen ari zen, Uztaro kooperatiba, proiektu autogestionatu eta kolektiboa. Esperientzia hori sortu genuen eta hainbeste urte eta gero kolektibo hori desagertu egin zen eta orduan ausartu nintzen Aleka proiektua sortuta

nire betiko kezka edo harrikada martxan jartzera: haziak modu kolektibo eta profesionalan ekoiztea".

Badalek ere bidea egina du hazien munduan: "Ni Bartzelonakoa naiz. 1990eko hamarkadan Bartzelonan okupazio mugimendu azkarra zegoen eta horietatik batzuk *masiak* [Herralde Katalanetako etxaldeak] okupatzen hasi ginen, baratzeak egiten eta autogestioa beste era batera ulertzen, ez soilik festetan garagardoa saltzen ez dakit zein kausarendako sosa lortzeko. Laster egin genuen harremana Pirinioetako beste herri okupatuekin: Itoitz borrokan zegoen eta nolabaiteko sare informala sortu zen Katalunia, Aragoi eta Nafarroan herri okupatuetan ginen artean. Garai horretan hasi ginen mugimendu agroekologikoaz mintzatzen. Ni Alta Garrotxan (Kataluniako Aurre-Pirinioetako eskualdea) dexente ibiltzen nintzen eta 1997an hantxe sortu zen Ecollavors, oso txikia, autogestionatua, lau lagun-ezagunen arteko ekimen informala izan zena, eta ordutik ibili naiz horrelako sareetan. Duela 14 urte Euskal Herrira jin nintzen, eta duela 12 urtetik bizi naiz Luzaideko etxalde batean.

Haziera proiektuan aritzeaz gain, Nafarroako Hazi Sarean parte hartzen dut".

Hankak Euskal Herrian kokatuta idatzi dute liburua, Arribasek azaldu duenez: "Euskal Herriak baldintza bereziak ditu eta beharrezkoa da baratze-ko liburu batek ezaugarri horiek kontuan hartzea". Euskaraz mintzo dira baina liburua euskaraz idazteko motz sentitzen ziren eta gazteleraz idatzi duten testua Markel Lizasoainek itzuli du. Arribasek oso ongi baloratu du itzulpena: "Laborantza munduko kontzeptuak ongi jaso dituela iruditzen zait eta uste dut lortu duela esaldiei eman nahi nien tonua mantentzea. Nik euskara asko ikasi dut liburu hau irakurritz!".

Badalek azpimarratu du laborari batek (Arribasek, alegia) idatzia dela liburuaren zati handiena: "Politika, historia, ekonomia, agronomia, genetika, botanika... Hori dena dago lotuta liburuan eta hori dena atera da laborari profesional, gazte, ekologiko batetik, gaez idazten zuena, behin bere baratze-ko eguneko jardunaldia bukatutakoan. Gaez hemen, Beizamako Leunda Berri baserrian idatzitako liburu bat da. Hori balio handikoa da". ●




Dani Blancoren 211 argazki

Dani Blanco argazkilariak urtebetez egin dio jarraipena landare espezie bakoitzaren zikloari, eta horri esker, liburuan aztertzen diren espezie bakoitzaren lorea, hazioztzia eta haziak ikusi ditzakegu argazkitan. Edertasunaz gain, argazki hauek informazio baliotsua gehitzen diote liburuari: batetik, baratzean hazia biltzeko punttuan noiz dagoen erakusten dute, eta bestetik, haziak egiten dituztenen begiek ere inoiz ikusi ezingo dituzten dimentsioan handituta eskaintzen dizkigu haziak, horien xehetasun guztiak perzibitu ditzagun. ARGIA astekariaren hurrengo zenbakian, Komunitatea atalean kontatuko du Itsaso Zubiriak nolakoa izan den Dani Blancok libururako egindako lan prozesua.

Liburuaren aurkezpena: irailaren 20an Azpeitiko Elikagunean

Liburuaren lehen aurkezpena irailaren 20an izango da, ostiralarekin, 18:30ean Azpeitiko Elikagunean. Bertan izango dira Miguel Arribas *Kelo* eta Marc Badal egileak, Markel Lizasoain itzultzailea, Maitane Gartzandia diseinatzailea eta Dani Blanco argazkilaria. Egileen azalpenak entzuteaz batera, liburuako argazkiak ikusi ahalko dira pantaila handian. Azpeitiko Udalarri eta Elikaguneari esker, hitzaldiaren ostean bertaratutakoek aukera izango dute zizka-mizkak dastatu bitartean liburuari buruzko iruzkinak eta galderak egiteko.



Haziak barretzeak estrategia inportantea izan da landare espezie askorentzat. Horrela, salbestu egiten dute beldirik diren ale soko eremu txiki batuan eta une beretan erortzea, nuzeean landarearen azpira erortza. Alde horretatik, fruituen edo hazien beren arkitekturak amanean sortu edo berazin zabaldu ezaitez die, modua ematen diona espazio berrietara bidaltzeko eta ugalketa zikloari jarraipena emateko, sendeekin argiare lehiatu ibili beharrik izan gabe eta barretze kontinente hori egiten dute barretzean gabe. Igia da landareek zabalteko duten joera eta negatiboan hausteman izan dutela nekazariek, hausteketa egiteko orduan ezagutari hori baxteru eta beste batzuetan emen haziate lehortasuna. Hori dela eta, agerikoagoo da hazia distantzia luzeetara barretzeak fenomeno basalandareetan landutakoetan baino.

Hazi askok forma borobilta izaten dute, lurraera trauka joateko modua ematen dietenak, ilarari beraz: lotegia edo uruzaren hazia, berria, "taneta" txiki botetik zintzilikatzen da, haizeak eraman dezan, animalia askok ezin diote txistu tomaten eta kinen hazi gonak irensteko tentatuz, gero ordet animalien gorrotoetan atxakitu dira uruzeko edozein tokitan, azkenik "biza" setatsak, berria, irmoki inastan dira barretzearen alandorretan edo beste edozein animalaren ileetan, tabakoren eta miteloteren hazi fimoioak hazi egunetan barretzearen dira landarearen zurtoin malguren goroneko kapuletatik metro batzuk eginda, eta atape hazien nutrizio eragarkari amu dira arazoentzat eta txorizentzat: hauek beren habitetan eta ezkatelakuetan hainbesteko biltzea eginda, nahi gabe nekazaritaren lanak egiten dituzte, etorkizuneko urak erortze. Kanamaki milaka hazi fimoio ekotien dira, edozein eratan bidaltzen dutenak, eta azkenean edozein espazio txiki kolonizatu dute, baina lurzoruko harriten baten arakala ere. Hasi sloki, loditzen diren leku leherretzen dute, eta agertzen gelditzen dira. Leku fimoioak dituztenak, hala nola azak, hazi ontsun berehala lehortzen dira, eta tentio horri esker ireki egiten dira.

Aldibide horietan denek erakusten dute zer nolako estrategia erabiltzen dituzten beren antzinako hazi barretzeak. Baina gure barretzeko espezieetako asko hain zuzen ere ez barretzeko hautatu izan dira. Zereletan, sende baski etxekoa gertuizten, hazi erabiltzen erortzen suten eta zuten landarek baina zuzen; horrela, nekazariek hazi berregaitu zezaketen nahiz eta lan gehiago hartu gero euklizten eta garbitzen. Horegatik, hazi bolat izaten da hainbesteko lana etxekotako espezieen hazi berretzen, oztuzten eta garbitzen. Babarrunak eta arsoak, eusteroak, ez dute hazia modu naturalen azkartzen, erpada gure eukien edo trenen apogonon hazte abalgia mekainak.

Edonola ere, azurrerago ikusiko dugun bezala, gure lana izango da hazi noiz ondu den kontrastea, ontsu dakartzen barretze mekainoak martan jartu baino lehen, bestela urta gabeko arriak izango baitugu.

Maitane Gartzandiaren diseinua

Liburuaren azala, ilustrazioak eta diseinua Maitane Gartzandiak findu ditu.



mantentzeko: familia eta elikadura sistema mantentzea. Gaur egun, ez dakit jende askok ihesaldi batean zer hartuko zukeen, mugikorraren kargagailua agian... Oso urrun gaude kontzientzia horretatik: haziei garrantzia eman behar diegu, zeren eta han dago gure elikadura, gure etorkizuna. Hori agroindustriari oso garbi dauka. Eta gu kontziente izan behar gara, burujabe izateko".

Badalek beste kontzeptu bat lotu dio haziari: "Hazi bat ate bat ere bada. Aukera eskaintzen dizu garai bateko nekazal mundua nolakoa zen ikusteko eta egungora nola iritsi garen pentsatzeko, aukera ematen dizu azken hamarkadetako prozesu historikoak hobeto ulertzeko. Denboran zehar baskulatzen den zerbait da". Arribasek biribildu du: "Bai, hazi bat iragana eta etorkizuna da, aldi berean. Iragan horrek egoera klimatiko eta gertaera anitz bildu ditu, eta bertako barietateetan dagoen memoria hori guztia orain oso baliagarria da bizitzin ari garen garai aldakorrerako, klima krisi honetan gure elikadura sistema martxan jarri ahal izateko. Hori dena da hazi bat".

HAZI HIBRIDOAK: A ZER PAGOTXA BAINA...

Liburuan kontatzen dutenez, F1 aldaera hibridoak asko ugaritu dira azken urteetan gure baratzeetan: aza, kuitxoa, meloi, tomate, piper, alberjina... Hazi hibrido bat zer den azaldu du Arribasek: "Behartutako polinizatortik dato-

ren hazi bat da. Zergatik egiten den prozesu hori? Hazi hibridoetatik datorren lehenengo landare belaunaldia normalean oso homogeneoa delako, denak berdinak dira, eta indar handiko landaketak izaten direlako. Horregatik, oso interesgarriak dira ekonomikoki, ekoizpen aldetik, eta gure kide agroekologikoei ere gero eta gehiago erabiltzen dituzte hazi hibridoak. Baina hauxe da paradoxa: landaketa horien hurrengo belaunaldiak ez dira bideragarriak. Eztabaidatu dezakegu antzuak diren edo ez, baina denak antzuak ez badira ere, hurrengo belaunaldiak oso ezberdinak ateratzen dira, oso heterogeneoak eta agian ez produktiboak. Beraz, hazi hibridoak erabiltzen badituzu, ezin dituzu horien haziak ugaltzeko erabili. Horregatik, guretzat hazi hibridoak etsaiak dira, zeren eta gero eta bioaniztasun gutxiago sortzen dugu, hau da, estandarizazioa dakar baratzeetara, eta gainera autonomia galtzen dugu, hazi enpresen menpe geratzen garelako. Noski, hori negozio biribila da multinazionalentzat. Hazi hibridoekin ezin ditugu gure barietateak sortu eta egokitu gure beharretara, gure baratzeetara, gure klimara...". Liburuan Marta Barba Gassók artikulua idatzi du, azalduz "euskal tomateek" zenbat kilometro egiten dituzten: izan ere, Euskal Herrian hazten diren Jack barietateko tomate landareen sorrerako haziak hibridoak dira eta eskulan merkearekin

eta teknika toxikoekin egiten direnez, tomate hazi horiek Hego Globalean ekoizten dituzte multinazionalak.

Badalek azaldu du azken aldian hibridoek beste "abantaila" bat eskaintzen dutela, hain zuzen, gaitz batekiko erresistentzia garatuta izatea: "Baina gaitz horiek askotan birusak dira eta COVID-19ak erakutsi digun moduan, birusak mutatu egiten dira eta etengabe ateratzen dira bariante berriak, beraz, hazi enpresak ere etengabe ari dira hazi belaunaldi berriak sortzen". Arribasek zera gehitu du: "Baina hazi hibridoak sortzen dituzten enpresek nondik sortzen dituzte gaitzekiko erresistentzia horiek? Bada hibridoak ez diren barietateetatik!". Badal: "Hori da, erresistentzia horiek gartzeko hazi bankuetan gordetako hazieta- ra jotzen dute". Gaitzekiko beldurra hazi hibridoak saltzeko amu ona bada ere, Badalek honela uxatu du beldurra: "Zure baratzea modu ekologikoan lantzen baduzu, gaixotasun horietako gehienak ez dira zuretzako arazo izango".

TRANSGENIKOAK: BIZITZA PATENTATZEKO ARRISKUA

Transgenikoen gaiak beti piztu du eztabaida eta jakin-mina, eta liburuak lantzen du gaia. Esterako, irakurleak gozatuko du Guy Kastler-ek libururako berariaz idatzi duen artikuluekin. Kastler erreferente da nazioartean; Europako Via Campesinako eta Frantziako Hazien Sareko kide historikoa da.

ARGIAzaleentzat, irailak 30 arte eskaintza berezia

Irailaren 30a baino lehen ARGIAkoa eginez gero, liburua opari jasoko duzu. Webgune honetan duzu erraz egiteko aukera: www.argia.eus/eginargiako
Dagoeneko ARGIAko kidea bazara, irailaren 30a baino lehen 24 euroan erosi dezakezu liburua. Horretarako, idatzi azoka@argia.eus helbidera edo deitu 0034 943 37 15 45 zenbakira.
Gainerakoentzat, 26 euroan dago liburua salgai azoka.argia.eus webgunean.



Arribasek honela azaldu du zer den hazi transgeniko bat: "Bere informazio genetiko zuzenean manipulatu den hazi bat da. Asko eztabaidatzen da ea osasunerako ona den ala ez... nik behintzat ez dut probatu nahi, eta berdin zait. Niretzat gakoa beste bat da: transgenikoak inposaketa bat dira sektorerako. Zeren eta arazoa zera da, zuk zure lursailean transgenikoak ekoizten badituzu, nire lursaileko artoa kutsatzen ari zarela. Orduan, nahi dudana artoa ereiteko dudana eskubidea kentzen ari zatzaizkit. Horregatik, transgenikoak debekatuta egon behar dira, zeren gure askatasunaren kontra doazen landaketak dira".


Transgenikoen teknologia garatzen duten enpresek promes egiten dute transgenikoei esker munduko gosea bukatzea lortuko dela. Arribasek "propaganda" dela dio: "25 urte daramatzagu transgenikoekin eta gosea ez da bukatu. Hau enpresen betiko tranpa da, berez behar ez dugun berrikuntza bat saltzeko. Denok dakigu gosearen arazoa banaketa arazoa dela, lotuta dago laborantza ereduarekin eta baliabideen banaketa txarrarekin".

Badalek transgenikoen garapenaren errebaso egin du, eta egun eztabaida zertan den kokatu du: "Begiratzen badugu zein ezaugarri zituzten hasieran zabaldu ziren aldaera transgenikoek, bereziki soja eta artoak, argi ikusten da barietate horietan bilatzen ari ziren ezaugarriak hain justu zirela agroindustriari ongi etortzen zaizkionak: adibidez, herbizida (tartean, glifosato) gehiago saltzeko... gero bigarren belaunaldi bat atera zen, aspaldian, esaterako A bitamina zeukan Indiako arroz bat, gosea bukatzeko argudioarekin. Eta azken urteetan, borroka handiena dago azken belaunaldiko transgenikoekin. Hori dena dator teknika genetiko berri batzuetatik, bereziki *crispr cas* edo "edizio genetiko" deritzon teknologiatik eta horrek dituen hainbat erabileren artean bat da hazien mundukoa". Kastlerrek liburuko artikuluan azaldu du COVID-19aren aurkako txerto gisa zabaldu zena ere teknologia horrekin eginga zela. Badalek jarraitu du: "Bultzatzaileek diote hazi barietate berri horiek ez direla transgenikoak, zeren eta transgeniko klasikoetan beste espezie baten material genetiko zati bat txertatzen

zen landareetan; aldiz, edizio genetikoarekin landareetan txertatzen dutena espezie bereko material genetiko da, baina tartean beti dago ingenieritza genetiko, eta hor dago eztabaida".

Osasunean eta ingurumenean transgenikoek ekar dezaketen kalteari buruzko eztabaidaz harago, Kastlerrek liburuko bere artikuluan "bizitza pribatizatze" arriskuan jartzen du fokua. Badalek honela azaldu du nola pribatizatzen ari diren bizitza, patenteen bidez: "Hazi transgenikoen enpresa handi horiek erratan dute beraien berrikuntzarekin jarraitu ahal izateko teknologia patentatu behar dutela, hau da, patentatu egin behar dutela landare transgenikoak sortzeko erabili duten metodoa, eta bestalde, babestu egin behar dituztela sortzen dituzten barietate berri horiek. Eta estatuei eskatzen diete enpresa horien eskubideak babesteko araudiak onartu behar dituztela. Hazien lobbyak nazioartean eragin handia duen erakunde bat dauka, UPOV izena duena eta duen indarra izugarria da, adibidez, estatu batek nazioarteko itun komertzial handi horietan parte hartu nahi badu, lehenik erakunde horretan sartu behar du".

Kultur sorkuntzan eztabaida pizten du lizentzien gaiak baina egoera surrealistikak sortzen dira enpresa batek patentatzen duena landare barietate bat denean, hau da, naturak bere kasa eta laborariak 10.000 urtez egin duten lanaren emaitza patentatzen denean. Liburuan muturreko hainbat kasu agertzen dira, eta honela azaldu du mekanismoa Arribasek: "Zuk barietate bat ez baldin badaukazu erregistratuta, edozein enpresak hartu ditzake zure baratzeko barietatetik haziak eta berak pribatizatu dezake barietate hori. Horregatik esaten diogu 'bizitza pribatizatzen' dutela. Eta aurrerantzean zuri dirua eskatu diezazuke, berak erregistratuta barietatea erabiltzeagatik. Horrelako



EUSKARA NONAHI

MATRIKULATU ZAITEZ


EUSKALTEGIETAN!

Udalak finantzatutakoa bilbaeuskaraz.bilbao.eus



B

Bilbao



Haziak liburuan Dani Blancok espezie bakoitzaren lorea, haziontzia eta haziak atera ditu argazkitan, landare bakoitzaren ziklo osoa ezagutu dezagun. Goiko argazkietan akain belarra eta beheko argazkietan porrua.

hainbat kasu egon dira, batez ere Hego Ameriketara eta Asian, baina baita Espainiako Estatuan ere. Beraien transgenia patentatu nahi badute, patentatu dezatela, niri bost axola, baina ezin da ondare komun bat patentatu".

HAZIEN ALDE LANEAN DIHARDUTEN EUSKAL HERRIKO EKIMENAK

Hibridoek ez dutela hazitarako balio, batetik; transgenikoek horiek nahi ez dituzten hazigileen landaketak kutsatzen dituztela, batetik; teknologia patenteek eta horietatik eratorritako barietate basteuek natura pribatizatu nahi dutela, hirugarrenik... gero eta oztopo gehiago ditu bere haziak landu nahi dituen baratzekizainak. Eta azken traba bat seinalatu du Badalek: "Lehen baserrietan haziak egitea ohikoa zen –gehienetan emakumeek egindako lana izan da– eta tokiko merkatuetan trukatu edo saltzen zituzten. Hamarkada gutxitan pasatu gara hortik hazi-etxe transnaziionalen mundu mailako monopoliora, eta orain haziak sal-

du nahi dituen edozein laborarik legez horretarako baimena eskuratu behar du eta enpresa erraldoien baldintza berak betetzea eskatzen zaio, adibidez, urtero hazi kilo mordoak ekoiztea. Eta hori laborariari beraien eskubideak kentzeko beste manera bat da". Aleka proiektuaren lehen borroka baimen hori lortzea izan zen, eta Arribasek ondorio hau atera du: "Edozein proiektu txiki, baserrietik eta agroekologiatik egiten dena ezinbestean egin behar da desobedientziaz, zeren eta legeak ez du kontenplatu ere egiten horrelako proiektu txikiak egon ahal direnik".

Trabak traba, Euskal Herrian haziak egin eta zabaltzen dituzten hainbat ekimen kolektibo daude martxan eta horien berri bildu du liburuak. Atal hori kolektiboan dago idatzia eta bertan aurkituko ditugu, batetik, hazien sareak: Nafarroako Hazi Sarea (Ester Montero eta Tania Gómezek idatzi dute beren ekimenen berri ematen duen artikulua) eta EAEn aritzen den Euskal Herriko Hazien Sarearen ekimenak. Bestetik, haziaren inguruan lan egiten duten sektore agroekologikoko

erakundeak azaltzen ditu liburuak: Biharko Lurraren Elkarte (Ipar Euskal Herrian aritzen dena, Niko Mendiburuk idatzia da honi buruzko artikulua), Bionekazaritza (Arabara) eta Biolur (Gipuzkoan aritzen dena, Leire Ibarretxek idatzia). Hirugarrenik, Euskal Herriko hazi ekoizleak ere eza-gutuko ditugu liburu honen bidez: Aleka, Hazialdeko (Nafarroako zereal eta lekale ekoizleen elkarte da eta Lorea Lizarretak idatzi du egiten dituzten ekimenen berri) eta Arto Gorria elkarte (Ipar Euskal Herrian kokatua).

Azkenik, hazien gaiak dibulgazio lana egiten duten proiektuak ere azaltzen ditu liburuak: adibidez, Cristina Enea fundazioeko Haziera hazien artxiboa, *Hazien liburutegiak* (Nafarroako 20 liburutegi publikotik gora biltzen dituen proiektua) eta *Eskolen arteko hazi sarea* (Gipuzkoako 15 ikastetxeek parte hartzen dutena). Haien denentzat baliagarri izan dadila liburu hau, eta balio dezala herritarrek hazien garrantziaz kontzientzia hartzeko eta hazigile txiki bihurtzeko, tokian tokian eta komunitatean. ●

“ ”

Migratzaileak autoan hartu eta Polizia egon zitekeen errepideak saihestuta eramaten nituen

Pertsona migratzaile asko eraman ditu Aritzek bere autoan, Poliziak ez ditzan harrapatu, gaueko iluntasunean ez daitezten galdu eta batetik bestera seguru ibili daitezten. Bereziki gogoan ditu Irundik Hendaiara muga gurutzatzen lagundu eta etxean lotan izan zituen emakumea eta haren bi alabak, tratu txarretatik ihesi; Parisen bizi dira egun. “Migratzaileen bila aritzen nintzen, Polizia bezala, baina hain justu Poliziaren kontrako helburuarekin”.

  MIKEL GARCIA IDIAKEZ

Gaur egun ez, baina duela bi-hiru urte Hendaian bizi zinen eta Irungo Harrera Sarean aritzen zinen. Pertsona migratzaile batek baino gehiagok Irundik Hendaiara muga gurutzatzeko laguntza eskatuko zizuen.

Nik esaten nien Hendaiatik aurrera jarraitu ahal izateko laguntza emango niela, baina muga ez nuela haiekin gurutzatuko; kartzela zigorra izan nezakeen. Azaltzen genien muga gurutzatzeko zer eta nola egin zezaketen, eta Poliziak hartu eta berriz Irunera bueltatuz gero, ez kezkatzeko, Irunera iritsi diren ia denek lortu dutela lehenago edo geroago muga igarotzea, salbu zoritxarrez ibaian ito direnek. Azken finean, inor ez da atzera bueltatzen, halako bidaiaren azken zatian ez behintzat. Polizia frantsesaren jarraera zentzugabea da, badakitelako modu batera edo bestera pasako direla, beraz zertara dator hainbeste oztopo jartzea?

Itxurakeria da orduan?

Presioa egiteko modua da. Zailtasunak jartzen dizkiete, baina honaino iritsi denak inoiz ez du beste aldera bidea egin-

“ ”

Zaila izaten zen konbentzitzea. Bidean jasan behar izan dituzte gezurrak, lapurretak, bortxaketak... Gehienak harritu egiten ziren: “Baina zergatik egiten duzu hau eta ez diguzu ezer kobratu nahi?”

go, batzuek urteak daramatzate ibilbidetan eta traba askoz handiagoak aurkitu dituzte aurretik.

Poliziak Irunera bueltatzen ditu atzemandakoak?

Bai, autoan sartu eta Behobian uzten dituzte, edo Santiagoko zubia pasa, Ficobako errotondan jaitsiarazi, eta beraiek errotondari buelta eman eta berriz Hendaia aldera itzultzen dira.

Gauza bat da muga gurutzatzea, eta bestea behin Hendaian daudela aurrera segi ahal izatea, Poliziak harrapatu gabe.

Gauzez Polizia kontrolik ez badago, errazago gurutzatuko dute muga, baina Poliziak badaki argirik gabe, garraio publikorik gabe, bidea ongi jakin gabe... aurrera segitzea oso-oso zaila dela, gaua bertan pasako dutela, eta goizean horien bila hasiko dira gendarmeak, urrutira



joan ezin izan dutela jakitun. Poliziaren estrategia hori zen garai hartan: muga pasatzen agian utzi bai, baina gero inguruan harrapatu.

Ni goizeko 5etan joaten nintzen lanera Hendaiatik Donibane Lohizunera, eta beraz, laguntza handia eskaini niezaiekeen muga gauez pasa berri zutenei. Autoan sartu eta Polizia egon zitekeen errepideak saihestuta, bide seguruagoetatik eramaten nituen, batzuetan baita mendi bideren bat hartuta ere, Polizia egon zitekeela jakinez gero. Hainbatetan, aurrez Irunen hitzartua nuen muga pasako zuen jendearekin, beste aldean hartu eta eramango nituela; beste hainbatetan, Hendaian aurrera egin nahian edo noraezean aurkitzen nituenak hartzen nituen autoan (gogoan dut zaurituta zegoen bat, oinez eta hanka arrastaka), eta Donibaneko tren geltokira eramaten nituen (noizbait baita Baionara ere), nahi dutena baita lehenbailehen trenera igo

eta Paris aldera abiatu. Donibanen Polizia baldin bazegoen, autoan aurreraxeago segi, geltokiak auzo batetik bestera pasatzeko duen tunela baliatu, inguruko aparkalekuan ezkutatu eta juxtu trenan iristean korrika sartzen ziren.

Behin baino gehiagotan egin dut pertsona batzuk autoan Donibanera eraman ostean berriro Hendaiara bueltatu, beste batzuen bila, nire buruak esaten zidalako “ezin ditut hemen utzi, arriskuan daude”. Berdin lanetik etxeratzen nintzenean: noraezean ikusten banituen, autoan sartu eta Donibanera itzultzen nintzen; bazkalduko nuen beranduago. Azkenerako, haien bila aritzen nintzen, Polizia bezala, baina hain justu Poliziak egiten duenaren kontrako helburuarekin.

Eta sartzen ziren autoan? Fio ziren?

Zaila izaten zen konbentzitzea, normal denez. Bidean jasan behar izan dituzte gezurrak, lapurretak, bortxaketak...

Irundik Hendaiara igarotzen laguntzea agindu dietenen iruzur kasuak ere ezagutzen ditut: muga gurutzatzearen truke diru bat kobratu, hitzordua jarri eta gero haien bila inor ez agertzea. Nolatan etortzen ziren nirekin? Jarrerak asko egiten du, zintzoki mintzatu eta aurretik beste pertsona migratzaile batzuk nola lagundu nituen azaltzeak, Poliziak harrapatu ez ditzan zer egin dezaketen komentatzeak... konfiantza ematen zien. Hainbaten kasuan, edozeri heldu behar hori ere bazegoen, nora jo oso ongi jakin gabe, “ea zortea dugun eta ez den iruzurra”, pentsatuko zuten. Batzuek esaten zidaten haien bila etorriko zirela, norbaiten zain zeudela. Edo gertatu zait bikote bat aurkitu eta batek nahi izatea eta besteak ez. Baita denak autoan kabituz ez eta haiek esatea: “Edo denak edo inor ez”, eta nik bi bidaiak egitea, eta besteen bila bueltatu nintzela bermatzeko, nire mugikorra uztea zain geratzen zirenei.

Denek ez didate baietz esan: norberaren esku zegoen autoan sartu edo ez erabakitzea, jakina.

Gehien-gehienak, hori bai, harritu egiten ziren, musutruk laguntzen nituelako: "Baina zergatik egiten duzu hau eta ez diguzu ezer kobratu nahi?".

Eta zergatik egiten zenuen?

Benetan laguntza behar duenari lagundu beharra sentitzen nuen, bihozgabea iruditzen zitzaidan jendea egoera horretan ikusi eta ez ezer egitea, itsasoan norbait itotzen ikusi eta salbamendu-uztaia botako ez banie bezala. Beste hainbat tokitan bezala, elkartasun sarea sortu zen Bidasoa alde honetan, eta antzera jokatzen duen jendea dut inguruan. Gainera, besteei laguntzeak ongi sentiarazten zaitu, lagundu izanak harrotasun puntu hori ematen zidan, bizipoza, nire autoestimua elikatzen zuen. Bueltan jasotzen duzun esker ona gauza handia da, begiek nola egiten dieten dir-dir.

Duela ez hainbeste, guri egokitu zitzaigun erbestera joan behar izatea, eta beharbada etorkizunean ere, guri, gure seme-alabei edo bilobei beste norabait alde egitea egokituko zaie, eta gustatuko litzaidake norbaitek modu berdinean laguntzea, aurkitu dezatela jendea berdinetik berdineratratatuko dituen, paperak izan edo ez izan.

Zenbat pertsona lagundu dituzu?

Hendaian bizi eta Donibanen lan egiten nuen urte eta erdi edo bi urte inguruko epe horretan, ehundik gora lagunduko nituen, eta autoan sartu, hirurogei baino gehiago. Kasik egunero nuen laguntzeko aukera, egunero zebilen baten bat oinez, gaez.

Hirurogei pertsona baino gehiago oroitzen asko dira.

Kostako bidetik autoan, egunsentian

“ ”

Muga gurutzatzeagatik dirua eskatzen dietenek, sarri, nahita uzten dituzte Hendaiaiko geltokian edo Polizia dagoen lekutik gertu, berriro Iruna itzul ditzaten. Haien helburua ez da laguntzea, dirua baizik

eguzkia altxatzen ari dela... A zer nolako paisaia, a zer nolako bidaiak! Jainkoari eskerrak ematen zizkieten, jasotzen ari ziren laguntzagatik, eta nik esaten nien: "Jainkoak ez, nik ordaintzen dut gasolina".

Oso gogoan dudan kasu bat da Hendaian, Beltzenia inguruan, hiru emakume ikusi nituenekoa, bertako autobus geltokirantz. Esan nien Donibanera hurbilduko nituela, eta mesfidati begiratzen zidaten arren, autoan sartu ziren azkenean. Atzean eseri zirenean, hara non ikusi nuen emakumeetako batek bularraldean zuen zapian haur jaioberri bat zeramala. Halako baldintzetan dagoen jendeari laguntzea bereziki pozgarria da. Gainera, Donibanen Polizia patruila bat zain zegoen geltokian, eskerrak autoan eraman nituen.

Batzuei telefono zenbakia eman izan diet, harrapatzen bazituzten edo arazoren bat bazuten, nigana jo zezaten. Eta gero mezuak jasotzen nituen, "iritsi naiz Alemaniara!" eta halakoak, eta ni hunkituta, noski, baita harro ere, lagundu izanagatik.

Gehienek Paris zuten helmuga.

Bai, eta nik esaten nien beharbada ez zela lekuri onena, errealitatea oso gordina da Parisen eta ziurrenik aurrera egiteko aukerak ere beste toki batzuetan baino txikiagoak. Galdetzen nien ea norbait zuten Parisen lagunduko ziena, bestela milaka pertsona daudela han kalean bizitzen, agian hiri txikiagoetan edo landa eremuetan lan eta bizitza aukera hobek izan zitzaketela. Baina gauzak garbi dituzte eta normala da, bidaiak luze baten ostean, helmuga oso gertu ikusten dute eta iristea dute helburu. Belgikara, Alemaniara, Britainia Handira... ere joaten ziren batzuk.

Kasu batean bai lagundu zenien muga gurutzatzen.

Ginea Konakryko emakume bat etorri zen Iruna, bi haurrekin. Ama ez zen asko ateratzen San Joan enparantzan jarrita genituen kanpin dendetako batetik, baina haurrak bai, jolasten aritzen ziren plazan, eta kariño handia hartu genien. Emakumeak indarke-ria handia jasan zuen senarrarengandik, zigarroak sorbaldan eta bularretan itzaltzen zizkion adibidez, eta bi alaba txikiekin alde egin behar izan zuen, bi seme nagusiak Ginea Konakryn utzita. Berarekin ekarritako alaba txikiak 2-3 urte izango zituen, eta zaharrenak 5. Muga pasatzeko laguntza eskatu zigun, eta aurrekoetan ez bezala, ikusita egoera oso zaurgarrian zegoela eta bere herrialdera bueltatzeak heriotza esan nahi zuela, muga pasatzen guk geuk laguntzea erabaki genuen.

Arratsean nik auto batean bakarrik gurtzatu nuen muga, eta atzetik Hendaiaiko bi emakumerekin batera joan ziren hirurak, beste auto batean. Telefonoz informatzen nindoan denbora guztian, bidea garbi zegoela. Hendaian, gure etxean afaldu eta pasa zuten gaua, eta hurrengo goizean ber- rriz ere berdinean egiten genuen, ni aurretik,



bardoak
2024
Nafarroako Taldekako Bertsolari Txapelketa
Irailaren 13tik urriaren 26ra

Atarrabia · Erratzu (Baztan) · Erronkari · Etxauri · Eugi · Gares · Irunberri · Irurtzun · Iruñea · Leizta · Lekaroz (Baztan) · Lekunberri · Lesaka · Lizarra · Olazti (Sakana) · Sunbilla (Malerreka) · Tafalla · Tuteria

Antolatzaileak:  bertsozaleak

Laguntzaileak:  ARGIA

www.bertsozale.eus

“”

Arratsean, autoz bakarrik gurutzatu nuen muga, eta atzetik bi emakumerekin batera joan ziren ama-alabak, beste auto batean. Telefonoz informatzen nindoan denbora guztian, bidea garbi zegoela

haiek atzetik, Donibane Lohizunen tren hartu zuten arte. Parisera bidea hartuta agurtu genituen.

Harremana mantendu duzue geroztik. Nola joan zaie?

Indarkeria matxista sufritzen dutenak eta paperik gabeak laguntzen dituzten Paris-ko elkarte batekin kontaktua egina zuen emakumeak, eta Harrera Sareak mezua jaso zuen elkartetik: “Iritsi dira eta ongi daude”. Pertsonalki, harremana mantendu dut emakumearekin, azken finean, bai gure etxean pasa zuten gaua, bai Irunen jasotako laguntza oso gogoan dute, aspaldiko partez aterpe epel eta goxo bat, maitasun handia... eta noizbehinka elkarren berri izateko mezuak bidaltzen errezkiogu elkarri: badakit adibidez alabei erresidentzia baimena eman zietela, amari ez ordea, egoera xelebrea gero; neskak eskolara joaten hasi zirela, eta orain, azkenean paperak lortu dituela emakumeak. Ongi daude.

Hendaiatik Donibane Lohizunera pertsona migratzaileak eramateak ere ondorioak izan ditzake, ezta?

Entzuna nuen mugaren beste aldean hartuta ez zegoela kartzela zigorrik, baina kontziente nintzen arrisku bat bazegoela, komisariara gutxienez eramango nindutela pertsona migratzaileak garraiatzen harrapatuz gero, eta beti tentuz ibiltzen nintzen, nondik joan eta nondik ez, Polizia sailheste-ko, batez ere ondorio larrienak eramaten nituen pertsonak jasango zituzten-eta.

Migratzaileak laguntzeagatik auzitan bukatu du hainbatek.

Hain justu, ez laguntzeak izan behar luke delitu. Auto-istripuetan edota espaloian zauritaren bat ikusiz gero laguntzera edo



larrialdietara deitzera derrigortuta gauden gisan, kasu honetan ere hala behar luke legez. Eta behin hasita, pertsona migratzaileak laguntzeagatik zigortzen dituzten horiek zigortuko nituzke nik.

Zer iritzi duzu diru truke muga gurutzatzen laguntzen dutenez?

Nik beti esan diet migrazio-bidean direnei hori ez egiteko, modu batera edo bestera eta gutxiago edo gehiago kostata, lortuko dutela muga gurutzatzea, lasai egoteko eta ez duela merezi, sarri gainera nahita uzten dituztelako Hendaiako geltokian edo Polizia dagoen lekutik gertu, berriz ere bueltatu ditzaten Irunera. Azken finean, haien helburua ez da laguntzea, dirua baizik.

Lagundu eta horren ordainetan dirua eman nahi badiote jasoko duenik izango da, baina niri behintzat ez zait inoiz bidezkoa iruditu nik baino gutxiago duenari dirua kobratzea, laguntzearen truke.

Batek baino gehiagok eman nahi izan dit gainera dirua, eta nik beti esan diet ezetz.

Bolo-bolo dabil migrazioaren gaia. Etekin politikoa ere ematen duenez, “irregularki datozenak deportatu behar dira” gisako diskurtsoak entzuten ditugu.

Madrilen nahi dute legez onartu milioi erdi euro edo gehiagoko etxea erosten duenari automatikoki ematea erresidentzia baimena. Diruduna baldin bada, kanpotik etortzea ez zaigu axola, arazoa da txiroak baldin badira datozenak. Zenbait lan egiteko, baldintza ez duinetan eta inolako eskubiderik gabe, orduan bai, enbarazu gutxiago egiten dute. Alegia, diskurtsoa hipokrita hutsa dela eta diskurtso horiek erostea erraza, gizarte oso indibidualista sortu dutelako, eta norbere bizi kalitatea eraso dezakeen edozer sumatuz gero kanpora bota nahi dugu. ●

ZIGA (BAZTAN)

Herri baten sorrera, eskalaz eskala

Zer da herri bat? Galdera horrek oso erantzun desberdinak izan ditzake alderdi materialari edo inmaterialari begiratuz gero: eraikin zein etxeei, edo komunitateari zein elkarbizitza arautzeko moduari. Baina herriek ingurumenari eta lanari estuki loturiko iragan bat dute, eta Baztan ibarreko Ziga dugu horren adibide garbi bat, mende luzetan nekazaritzarako sorturiko terrazen edo *xunden* historiari erreparatzea besterik ez dago.

 JOSU NARBARTE HERNANDEZ

Aspalditik, historialariak eta arkeologoak ohartuta daude Europako gizartea eta paisaia artikulatzen duen elementu nagusia herriak direla, identitate kolektiboa duten eta lurralde bati erroturik dauden giza komunitateak diren heinean. Eredu hori Erdi Arotik dator kigu eta, ñabardurak ñabardura —aristokrazia feudalek, Elizak eta Estatuak ezarritako botere-harreman bertikalak, kasu—, XIX. mendeko Industria Iraultzara arte nagusitu zen.

Baina zergatik sortu ziren herriak toki jakin batzuetan eta ez besteetan? Zerk azaltzen du haien banaketa espaziala eta inguruko lurraldearekin duten harremana? Nola baldintzatu ditu ingurumenak eta klimak? Eta nola egokitu dira herritar-

rrak baldintza horietara? Galdera horiek bizi-bizi daude ikerlarien artean, baina, gainera, berebiziko garrantzia hartu dute egungo krisi klimatikoaren testuinguruan. Zentzu horretan, Aranzadi Zientzia Elkar-tearen Baztango *Paisaia arras bizia* egitasmoak emaitza interesgarriak eman ditu.


BAZTAN, HIRU ESKALATAN

Izen bereko ibaiaren inguruan antolatuta, eta Aldudeko mendiez inguratuta, hamabost herri ditu Baztanek. Bere “geografia soziala” hiru eskalatan antolatuta izan da Erdi Aroz geroztik. Lehen mailan *etxeak* zeuden. Mendetan oinarritzko auzotasun-subjektu izan ziren eta batzarretan parte hartzeko zein herri-lurretako baliabideak ustiatzeko eskubidea

zuten. Haien garrantziaren lekuko dira belaunaldiz belaunaldi transmititutako etxeen izenak eta irauteko pentsatuta eraiki ziren arkitektura ederrak. Ibarreko hainbat etxek XV. mendeko elementuak mantentzen dituzte, gehienak XVII. eta XVIII. mendeetako loraldi ekonomikoan berriro baziren ere.

Bigarren mailan *herriak* aurkitzen dira. “Auzotasun-eskubidea” zuten etxe multzo gisa defini daitezke *-batzarre-*aren inguruan antolatuta-. Elizak, hilerriak, plazak... dira identitate kolektibo horren isla, baina etxeak sakabanatuta ere egon daitezke. Herri horien lehen aipamenak XIII. mende inguruan hasten dira agertzen dokumentuetan, nahiz eta haien jatorria zaharragoa den ziur aski.

ARITZ DIEZ ORONÓZ





Zigako terrazek mendiaren formari egokitutako zerranda luzeak osatzen dituzte, harri lehorreko horma sendoz indartuta. Herritarrek *xunda* deitzen diete.

Azkenik, hirugarren mailan *ibarra* bera dago, herri guztien batura. Hark du benetako komunitate politiko baten izaera. Antzinatean, hainbat gai zibil eta ekonomiko arautzeko gaitasun juridikoa izan du, horien artean herri-lurren kudeaketa. Baztanen, gaur egun, ibarraren %84 herri-lurrak dira, baina antzina %99 izatera iritsi ziren. Oihan eta bazkalekuen jabetza kolektiboa 1441. urtean aitortu zion Nafarroako Kontuen Ganberak Baztani, Koroarekin zerga batzuen inguruan izandako auzi baten ondoren.

Baina nola sortu zen lurralde-antolamendu berezi hori? Zer lotura du natur baliabideen ustiapen kolektiboarekin? Nolako bilakaera izan du? Ziga herriaren kasuak emango dizkigu pista batzuk.

ZIGA, HERRI BAT LUPA AZPIAN

Ibarreko herri ttipien artean dago Ziga –2023an 134 biztanle zituen, 2019an baino 50 gutxiago– eta Belateko lepora doan

Bere izenak basoz
estalita zegoela adierazi
arren, VI. mende
inguruan baso horiei su
eman eta nekazaritza-
paisaia egonkorra sortu
zuten zigatarrek

bidean kokatzen da, ikuspegi ezin hobea duen gain batean. Toponimoa *zihi* 'harizti' hitzak eta *-aga* ugaritasun-atzizkiak osatzen dute, eta horixe litzateke bertako landaretza potentziala. Hala ere, baso azalera oso txikia da gaur egun, hainbat mendeko giza jardueraren ondorioz.

Zigaren aipamen zaharrenak Erdi Arotik datoz, baina XVI. mendetik aurrera asko ugaritzen dira. Besteak beste, herritarrek Egozkueko jaunaren aurka hasitako auzibide bat kontserbatzen da, herri-lurrak pribatizatzen saiatu zelako.

Nafarroako Errege Artxibo Nagusian hainbat errolda edo *su-liburu* ere badaude; une bakoitzean herrian zeuden etxeen izena eta kokapena jasotzen dituzte –ba-

tzuetan, baita bizilagunen izenak ere-. Etxe horietako asko zutik daude oraindik eta, horri esker, herriaren bilakaera xehe-tasun handiz berreraiki daiteke.

Etxe kopurua etengabe hazi zen, XVII. mendean bereziki. Gainera, arkitektura nabarmen berritu zen: egun ikus ditzakegun zurezko bilbe-egiturak eta harrizko hormak garai hartakoak dira. XIX. mendean, berriz, herri inguruan sakabanatuta zeuden ardi-bordak baserri bihurtzeko joera indartu zen.

Baina etxez gain, Zigako paisaia arreta ematen duen beste elementu garrantzitsu bat ere badago: mendi magaletan eraikitako terraza-sistema handia. Terrazek 20 hektarea inguruko hedadura hartzen dute eta ia 70 metroko desnibela gainditzen dute. Herriarrek *xunda* deitzen diete. Nekazaritzarako sail lauagoak lortzeko eraiki ziren, eta gaur egun belaiak eta baratzeak hartzen badituzte ere, berriki arte arto-landa gisa erabili izan dira.





Aranzadik zundaketa geo-arkeologikoak egin ditu eta bere formazioan eragin duten giza- eta ingurumen-faktoreak identifikatu ahal izan ditugu, hango nekazaritzaren historia berreraikitzeko. Emaizak harrigarriak izan dira.

LURRA, DENBORA ETA LANA

Zigako terrazen historia ulertzeko, ezin bestekoa da geologiari ere begiratzea. Inguru osoa Leitzako failak zeharkatzen du, eta horrek hainbat arroka osatutako *mélange* edo nahasketa geologikoa eratu zuen: buztin triasiko metamorfizatuak, ofitak, marmol jurasikoak, mantuko lherzolitak, peridotitak... Klima hezeari esker, lurzoru sakonak eta aberatsak eman dituzte, eta lur emankor hori ustiatzeko sortu zuten herria.

Bere izenagatik pentsa dezakegun arren basoz estalita zegoela, ikerketak erakutsi du VI. mende inguruan baso

URTEA ETXE KOPURUA



Zigako lur estalduren bilakaera: A) Landaretza potentziala. B) Egungo landaretza. C) 1927ko aire-argazkia. D) 2008ko aire-argazkia.

horiei su eman eta haien tokian nekazaritza-paisaia egonkor bat sortu zutelako zigatarrek, terrazak eraikita.

Datazio hori bat dator Europa osoan gertatzen ari zen mugimendu batekin. Erromatar inperioa erori ondoren, hainbat tokitan landa-komunitate berriak sortu ziren era autonomo samarrean. Komunitate horiek herri gisa instituzionalizatzen joan ziren VI. eta VIII. mendeen artean, eta prozesu horietan funtsezkoa izan zen lurraldearen eta baliabideen gaineko kontrol kolektiboa lortzea. Euskal Herrian, antzeko kasuak ikusi ditugu Aizarnan eta Akoan (Gipuzkoa) nahiz Tobillasen (Araba).

Zigako terrazetan betelanak egin ziren etengabe lurzoruen kalitatea bermatzeko -

Paisaia ez da zera aldagaitza, mendeetan elkarren ondotik lurra landu duten landa-komunitateen lanaren emaitza baizik

karea eta ongarriak gehituta-. Lurrazaletik gertuagoko geruzetan bereziki nabarmena da prozesu hori, eta iradokitzen digu nekazaritza gero eta intentsiboagoa bilakatu zela, hain justu etxe kopurua emendatu eta arkitektura ereduak berritu zen garaian.

Zigan ikusitakoak badu zerikusirik Euskal Herriko isurialde atlantiarreko bilakaera ekonomikoarekin. Itsas-merkaritza transatlantikoak eta, bereziki, artoa bezalako labore amerikarren sarrerak iraultza eragin zuten nekazaritzan, eta horrek hazkunde demografiko eta ekonomiko handia ekarri zuen. Hala, une horretan finkatu zen gaur egun "tradizional" deitzen dugun baserriko bizimodua, askoz ere erro zaharragoak zituen paisaia baten gainean.

Zigako kasuak erakusten du herrien sorreran eta bilakaeran nolako eragina izan duten ingurumenari loturiko faktoreek, lurzorua eta klimak kasu. Paisaia ez da zera aldagaitza, mendeetan elkarren ondotik lurra landu duten landa-komunitateen lanaren emaitza baizik. Izaera horrek ematen dio, hain zuzen ere, bere ondare-balioa: bizirik dagoen ondarea, denboraren joanean giza- eta ingurumenaldaketan aurrean egokitzeko gaitasuna eguneroko praktika ttipietan datzala erakusten diguna. ●

Kamiseta **17 €**

Poltsa **10 €**

Bidalketa gastuak **5€**.
Bidalketa doan **40€**-tik gorako erosketetan.
BIZUM bidez ordaindu daiteke.

BIZI BARATZEA



DANI BLANCO / ARGIA CC BY-SA

Lanak emango dizkigu agenda honek

ITSASO ZUBIRIA ETXEBERRIA

Aurreko astean hitz egin genuen lurraren erritmoa jarraitzen duela gorputzak ere. Interesgarria iruditu zitzaidan oso eta nahiko logikoa, ni konbentziturata bainago ilargiak pertsonok ere mugitzen gaituela. Zergatik ez ditu mugituko, beraz, lurraren taupadak? Tabernako barra atzean lan egiten nuenean nabaria zen ilargi bete, baina baita elurra edo hego haizea ere. Ai, izan banu agenda bat mugimendu haiek apuntatzeko...

Orain badaukagu agenda hori eta izena du *Ilargia eta landareak agenda*. Jakoba Errekondoren jakintzarekin eta Antton Olariagaren esku-pintzelekin ondua da eta 2025eko salgai daukagu dagoeneko Argiaren Azokan. Askorentzat ezaguna izango da eta zenbaitek izango ditu aurreko urteetako agendak, apuntez beteta, apalategian gordeta, kontsultategi modura. Guk gure etxean beste urteetako agendetako Olariagaren marrazkiak ditugu gordeta, umeei animalien irudiak

erakutsi eta detaile bakoitzarekin jolas egiteko. Erabilerak askotarikoak ditu agenda honek, erabiltzaileak adina ia. Ez baita soilik hitzorduak zerrendatzeko koaderno, egiten baitugu ilargiaren koparen arabera astero lurrari lotuta egin ditzakegun lanen proposamena.

NORENTZAT DA AGENDA HAU?

Beraz, baratzea egiten dutenek –edo fruitu baratzea dutenek, edo lore baratzea, edo basoa–, badute egitekoen zerrenda eta egiten dituzten lanak bertan idazteko txokoa –noiz erein duten, zein baldintzatan, zer arazo izan dituzten, nolako uzta jaso duten...–, horrela hurrengo urteetan informazio hori kontrasterako erabiltzeko. Edo agenda hau erabil dezake bulegoan lan egiten duen batek, bai baitu espazioa bulegoko eguneroko lanak idazteko eta lurrarekin kontaktu zuzenean lanean ari ez denarentzat atsegin eta garrantzitsua izan baitaiteke kanpoan natura zertan da-

bilien jakitea. Agenda hau baliatu dezakete ikastetxeetan, eskola baratzea izan zein ez, oinarrizko ezagutza bat izan dezaten ikasleek. Baita baratzerik izan gabe ere bertakoa eta sasoikoa jan nahi duenarentzat ere, azaltzen baita hilerok zein barazki diren garaikoak. Hizkuntza zaleentzat ere interesgarria izan liteke, astero esaera zahar bat dakarrelako eta lurrari lotutako terminologia oso bat. Eta natur zaleek ere baliatu dezakete, hilabetero bertako animalia baten berri dakarrelako, Antton Olariagaren ilustrazio eder batekin osatua.

Aurten, gainera, hilekoaren jarraipena egiteko orrialdeak gehitu ditugu; ilargiaren zikloetan ibiltzen garenontzat baliagarri.

Lur mutur bat landu edo ez, agenda honek lagunduko digu egunerokoa antolatzen eta naturaren erritmoan bizitzea zail bazaigu ere, behintzat natura zein erritmotan dabilen kontzientzia izaten. ●

Indarkeria, endogamia eta baztanga Trebiñun

Trebiñu, VI. mendea. Eremita talde bat Las Gobas kobazuloetan bizitzen hasi zen, eta historiaurretik okupatutako Laño ibaiaren haitzarte hartan kobazulo berriak hondeatu zituzten. Hurrengo mendean kobazuloetako bat nekropoli modura erabiltzen hasi zen bertako komunitatea. IX. mendean kobazuloak utzi eta bizidunak bailarara jaitsi ziren, baina hildakoak han ehortzen jarraitu zuten XI. mendera arte.

Nekropolian 41 gorpu aurkitu dituzte guztira. Besteak beste, EHUko Agustín Azkaratek eta Aranzadiko Lourdes Herrastik ikertu dituzte arrastoak eta ondorioztatu dute komunitate horren hastapenetan indarkeria maila handia zela, fundatzaileetako bik ezpata zauriak dituztelako.

Berriki, Stockholmeko Unibertsitateko Paleogenetika Zentroko ikerlari batek, Ricardo Rodríguez Varela buru, ikerketa genetikoaren erantsi die aurrez egindako lanei, eta emaitzak *Science Advances* aldizkarian argitaratu dituzte. Guztira 39 indibiduoren DNA eskuratu dute. Horren bidez, hildakoen arteko odolkidetasun maila handia zela ondorioztatu dute. Ezpatez zauritutako bi indibiduok lehengusuak ziren eta, oro har, han ehortzitako guztiek ahaidetasun lotura zuten gutxienez komunitateko beste pertsona batekin. Hau da, endogamia maila handiko komunitatea izan zen, bereziki lehen fasean, kideak bailarara jaitsi baino lehen.

Gainera, VII. mendean musulmanak inguru haietara iritsi arren, eta Las Gobas kristau eta musulmanen arteko mugatik hurbil egon arren, horrek izan zuen eragina ez zen nabarmena izan. Afrika iparraldeko osagai genetikoak zertxobait gora egin zuen hurrengo bost mendeetan, baina osagai hori he-

goalderago bizi ziren beste komunitate batzuetakoa baino askoz txikiagoa zen. Endogamiari datu hau gehituta, garbi dago Las Gobaseko komunitatea oso isolatua zegoela.


Agustín Azkarate horretaz jabetuta zegoen azterketa genetikoaren baina lehen ere, handik gertu dauden beste hilotza baskoietan, esaterako Aldaietakoan, ehortzketak ohiturak oso bestelakoak direlako; inguruko kasuetan hildakoak objektu sorta aberatsekin ehortzi ohi zituzten eta Las Gobasekoak askoz soilagoak dira.

Azterketa genetikoak indibiduo horiek izan zituzten gaixotasunei buruzko informazioa ere eman du. Jatorri birikoa duten gaixotasunek nekez uzten dute arrastoa DNAn eta, beraz, bakterioek eragindako patologiak topatu dituzte. Aurkitutako kasu gehienak zoonosiak dira, hau da, animaliekin harremanetan kutsatutako gaixotasunak; horrek esan nahi du abeltzaintza

jarduera garrantzitsua zela kobazulo artifizial horietako biztanleentzat.

NONDIK ETORRI ZEN BAZTANGA?

Nekropoliko indibiduo batek baztanga izan zuela utzi du agerian ikerlanak eta aurkikuntzak garrantzia berezia du gaixotasun horren bilakaera argitzeko. Europa hegoaldean orain arte aurkitutako kasurik zaharrena da. Zientzialariek luzaroan eztabaidatu dute baztanga nola sartu zen Iberiar Penintsulan. Zenbait tesiren arabera, baztanga hegoaldeko sartu zen, musulmanek ekarrita. Baina ikerlanak, batetik, agerian utzi du aztarna genetiko afrikarra oso urria zela komunitatean. Bestetik, Las Gobasen aurkitutako baztanga anduia bat dator Eskandinavian, Alemanian eta Errusian topatutako garai bereko anduiarekin. Ondorioz, historian zehar hildako gehien eragin dituen gaixotasunetako bat gurera ekarri izana ezin diegu musulmanei leporatu. ●



**NAGORE
IRAZUSTABARRENA
URANGA**



Trebiñuko Las Gobaseko nekropolian ehortzitako gorpuen azterketa genetikoaren bidez, beste hainbat ondorioz, baztangaren bilakaerari buruzko informazio garrantzitsua aurkitu dute.

UGALKORTASUNARENTZAT SENDABELARRIK EZ



GARBIÑE LARREA
ITURRALDE



DANI BLANCO / ARGIA-CC-BY-SA

Kaixo Garbiñe! Asko gustatzen zait egiten duzuna. Ugalkortasunarentzat sendabelar baten bila ari naiz baina zure liburuan ez dut aurkitu. Bizi naizen lekuan inork ez daki horri buruz". Mezu hori jaso nuen hila-bete dela Instagrameko pribatutik eta eragin zizkidan hausnarketa eta kezka artikulu honetara ekarri nahi ditut.

Hasteko, ugalkortasun arazoak anitzak dira eta denetarako egokia den sendabelarrik ez dago. Ugalkortasunerako sendabelar bat dagoela pentsatzea planteamendu desegokia da, nahiz marketing arrazoiengatik etiketa hori ipini ohi zaien hainbat landareri, salbiari (*Salvia officinalis*) edo zizare-belarrari (*Artemisia vulgaris*) kasu.

Ugalkortasuna zaintzeko elikadura eta bizi ohiturak dira lehentasunezkoak, sendabelarrak eta gehigarriak bigarren mailakoak dira. Hau da, gorputzean bitaminak eta mineralak falta badira eta estresa badago, ez dago egoera horiek gainditzeko eta ugalkortasuna ziurtatzeko gai den landareri edo pilula naturalik.

Sendabelarrek dakitena liburuan berberena (*Verbena officinalis*) hilekoan nola erabili azaldu genuen: mina baretze

aldera eta umetokiaren hustuketa eraginkorra ziurtatze aldera jaso genuen erabilera seguru bat bertan. Hilekoaren lehen hiru egunetan hartzen da infusio bakarra afalostean, ez gehiago, hilekoaren lehen egunean hasita. Urtebetean egitea gomendatzen nuen baina bizi osoan egin duenik ere bada.

Salbiari buruz emakumearen landarea dela esaten da baina zehaztu behar litzateke zein emakumerena, zein gairitan eta zenbat/nola hartuta. Ugalkortasun arazoak dituzten emakumeen gehiengoak hiper estrogenismoa izan ohi du eta horretarako salbia ez da egokia, are gehiago, fitoestrogenoak dituen zaihestu beharreko sendabelarra da. Hori bai, lurrun bainua eginda sendabelar segurua da, baita aipatutako kasu horietan ere. Urtaro aldaketa bakoitzean salbia freskoa erabilita lurrun bainua egitea gomendatu genuen liburuan eta zuetako asko zarete lekuko zertaraino den onuragarria, lekukotza asko jaso ditugulako urte hauetan.

Milorria (*Achillea millefolium*) eta ilena (*Calendula officinalis*) sendabelar handiak dira emakumeen hormona osasunerako eta badakigu hormona osa-

sunik ezean nekeza dela ugalkortasuna izatea. Fase folikularrean bien infusioa har genezake, emakumearen arabera infusio bakarra edo gehiago.

Galdera egin didan irakurle honi gogorazten nion ez dagoela osasun hormonalik osasun hepatikorik gabe eta horregatik udaberriro gibel garbiketa egiteko beharra ikusarazi nahi izan nion. Hiper estrogenismoa ugalkortasunaren etsai handia da eta gibelak berebiziko garrantzia du pilatutako estrogenoa ezabatzen. Negakina (*Fumaria officinalis*) erabiliz gibela eta behazuna garbitzeko udaberriko infusioa nola prestatu azaldu nion. Negakinaz gain mendafina (*Mentha piperita*), txikori-belarra (*Taraxacum officinale*), boldoa (*Peumus boldus*) eta azitraia (*Satureja montana*) nahastuta prestatzen den infusioa hartzearen beharra azpimarratu nion. Bide batez, sendabelar bakarrarekin ugalkortasuna lor daitekeen ameskeria uxatuz.

Sendabelar hauek guztiak ez dira haurdunaldian eta edoskitzaroan erabiltzeko egokiak eta badituzte beste hainbat albo ondorio ere, beraz, erabiltzen hasi aurretik behar bezala informatu. ●

A ZE FAUNA!

LANDAZABALEKO BURUHANDIA



NEREA PAGALDAI AGIRIANO
ARANIZADIKO KIDEA

Hegazti buruhandia dugu hau, baina ez egoskorra delako, baizik eta fisikoki buru handia duelako. Horregatik da ezaguna hegazti hau, euskaraz erabiltzen diren izen askok bere begi eta buru handiari egiten diote erreferentzia: buruhandi, txorihandi, begihandi, ahohandi... Izen arrunta, aldiz, antzandobi arrunta (*Lanius collurio*) du.

Baserritar eta naturzaleek ondo ezagutzen dute, edo ezagutzen zuten, lehen askoz ugariagoa baitzen. Hiru antzandobi espezie ditugu gurean: antzandobi arrunta, antzandobi handi iberiarra (*Lanius meridionalis*) eta antzandobi kaskagorria (*Lanius senator*). Antzandobi arrunta identifikatzeko, kontutan izan beharra dago beste antzandobiek bezala dimorfismo sexuala duen espeziea dela, hau da, ar eta emeak itxura ezberdina dute. Arrek buru grisa eta begiak estaltzen dizkion mozorro beltza daukate. Bizkarra eta hegaleko lumak gorrixkak dira eta bularraldea arrosa dute. Emeak bestalde, arre pikartuak dira eta begietako mozorroa ere arrea dute. Dena den, biek dute moko sendo eta gako itxuradukoa.

Antzandobi arruntak udan zehar izaten ditugu gurekin, espezie migratzaileak baita: negua Afrika hegoaldean pasatzen dute. Bere migrazio bideetatik ere bada berezia espezie hau, ez baitute beste askok bezala Iberiar penintsula zeharkatzen. Antzandobi arrunt gehienek



ZEINEL CEVECI / WIKIMEDIA COMMONS

ekialderanzko noranzkoa hartzen dute lehenengo, Turkiaraino eta Mediterraneoaren ekialdeko kostatik jarraitzen dute Egiptoraino. Hortik aurrera bai, hegoalderanzko norantza hartu eta Kenia, Tanzania, Zimbaue, Zambia edo Malaurra doaz. Udaberrian iparralderantz migratzerakoan ere ekialdetik egiten dute bidea, baina oraingoan, Egiptotik beharrean, Saudi Arabiatik igarotzen dira.

Euskal Herrira heltzen denean gustuko eremu bat eta bertako zuhaitz edo zuhaixka bat aukeratzen du eta bertan umatzen da. Landazabalera loturiko hegaztia da, zuhaitz eta zuhaixkak zelaiekin tartekatzen diren inguruneak ditu gustuko, eta zuhaixkak arantzadunak badira, hobe.

Txori txikien artean, antzandobiak dira harrapariak diren bakarrak. Antzandobi arruntak gehienbat kakalar-doak eta matxinsaltoak ehizatzen ditu, baina erle, liztor zein armiarmak beza-

ANTZANДОBI ARRUNTA

Lanius collurio

TALDEA: Ornoduna / Hegaztia.

NEURRIA: Mokotik-isatsera: 16-18 cm. Hego-luzera: 24-27 cm.

NON BIZI DA? Landazabalean.

ZER JATEN DU? Intsektu, narrasti eta ugaztun txikiak.

BABES MAILA: Europa mailan babestua.

lako beste intsektu batzuk ere baditu gustuko. Sugandila eta narrasti txikiak, sagu eta satitsuak, edo hegazti txikiren bat ere ehizatzeke gai da. Antzandobi arruntak, bere lehengusuak diren beste antzandobiek bezala, ehizatutako animalien gordailuak egiteko ohitura daukate. Gordailu nahiko bereziak dira: harrapakinak elorriak bezalako arantzadun zuhaixken arantzetan sartzen ditu. Beraz, noizbait intsektu edo satitsuren bat arantza edo alambredun hesietan sartuta ikusiz gero, antzandobiren bat inguruan dabilenaren seinale.

Gaur egun geroz eta urriagoa den hegaztia da antzandobi arrunta. Mundu mailan populazioak mehatxaturik ez dauden arren, tokian tokian, gurean esaterako, populazioen jaitsiera nabarmena da. Urdaibaiko Biosfera Erreserbako populazioa 2012 eta 2019 artean %70 jaitsi da. Hala ere, kopuru txikietan izan arren, Euskal Herriko eskualderik gehienetan bizi da, nahiz eta lekurik lehorrean beste antzandobi espezie batzuek ordezkatzeko duten. Antzandobi arruntaren populazioen jaitsieraren eragile nagusiak nekazaritza geroz eta intentsiboagoa izatea eta landazabala uztearen ondorioz ematen den basotzea dira. Seguruenik nekazal arloan pestizidak nolahi erabiltzeak ere eragina izango du, hauek erabilia intsektuak akabatzen baitira eta espezie hau intsektuez elikatzen denez, harrapakinik gabe geratzen da. ●

USAIN GAIZTOKO BELAR BAT



JAKOBA ERREKONDO
JAKOBA@BIZIBARATZEA.EUS

Amarengandik hurbil bizitza gustatzen zaie. Ez dira urrutira joango santio-belarraren (*Jacobaea vulgaris*) haziak, eta haiengandik jaiotako landareak, familia osoa, amaren eta amonaren aldamenean hazi eta biziko dira. Familia tzarra, izan ere landare bakoitzak sasoi batean 2.000-2.500 lore ireki ditzake eta horietatik 75.000-200.000 hazi eman. Multzoka ikusiko dituzu urrutitik, lur heze baina drainatuak dauden tokietan; bereziki gustuko ditu trenbide eta bide bazterrak. Hemen ugariagoa da hegoalde lehorrean, areka, arroila eta hezeguneetan; iparralde hezean toki eguzkitsuetan ere bizi da.

Finlandian esaten dute garai batean itsasontzien lastrean edo lastan nahastuta iritsi zirela bere haziak hara; gaur egun portu inguruetakoa lurraldeetan ikusten da eta handik bideak eta trenbideak hartu eta lurralde berriak bereganatzen ari da...

Landare guztia pozoitsua da eta azienda, dakienak badaki, ikusi orduko urrundu egiten da. Kumeren batek punttaren bat dasta dezake, eta ahosabaitik burmuinera dagoen bide laburra dela medio betiko garunean zizelkatuta utziko dio: "Horri koskik ez, utzi bakean". Albaitaritzaz literaturan aipatzen da bera jateak dakartzan arazoen berri, batik bat behor aziendari. Kopuru oso txikia jatea nahikoa da gaixotzeko, eta nahiz eta dosi oso txikiak jan, bere osagaiak gorputzean pilatu egiten dira eta kalteak gerora azaldu daitezke; gibeledu zirrosia da horietako bat. Itxuraz aziendak, ez dakigu zein literatura irakurtzen duen, baina badaki horren berri. Gose larria duenean, tamainan baina jaten omen du santio-belarra. Beste batzuk belar hori jatera jarri egin dira eta aipaturiko literaturan bai azal-



CHRISTIAN FISCHER / CC-BY-SA 3.0

tzen da ardiek berarekiko duten adikzioa eta bazkan nahastuta, tamainan horiek ere, lasai asko jaten dute; gibela gogorra agi danean. Intsektu askok maite dute belar hau (sits, tximeleta, kakalardo, har, liztor txiki...), pozoiak nonbait haien arerioak hurbiltzea ere eragozten du eta haiek bertan gozo.

"Santio" izena loraldia uztailearen amaierako egun horren inguruan abiatzen duelako omen du. Loraldi luzea du, azaro artekoa. Lore hori deigarriak ditu eta bi metro arte luza daitekeenez, urrutitik erraz antzemateko modukoa da. Ikusgarria ere bai; zenbaitek lorategietara eramaten du. Pozoiarekin batera usain txarra dute hostoek. Miguel Colmeiro Penido galiziarrek 1885 eta 1889 artean argitaratu zuen *Enumeración y revisión de las plantas de la Península Hispano-Lusitana e Islas Baleares* lanegintzarrean santio-belarrarentzako jasota-

ko euskarazko izen bat haxe da: "Usai gaistoko besat bat"; seguru asko, informatzaileraren batek "usain gaistoko belar bat" esango zuen, eta transkripzioetan eraldatu. Baina "usai gaistoko" ederki ulertzen da.

Gaztelaraz ere izen xeble mordoia du, tartean "sacapeos", puzkerrak ateratzen dituen. Sendabelar bezala gaitz asko tratatzeko erabili izan da, baita horretarako ere. Euskaraz ere agian izango du antzeko izenen bat; 1980ko *Anuario de Eusko Folklore*-n haxe argitaratu zen goieritar jatorrean: "Santio-belarra ego-si eta aren ure eatea ona da aizek etaatzeko". Sendabide ez, baizik eta kontrario amorratua dute Kanadan, berez eurasiarra dena inbaditzaile izendatua, Alberta estatuan kentzera behartzen dute, ezta lorategian edergarri eta intsektuen etxe ere. Belar immigrantea kanpora! Puzkerrak barrura! ●

BARAZKI BIZIDUNAK

BARAZKI EKOIZPEN PROIEKTUA BERROBIN



GARAZI ZABALETA
@TIRIKITRANN

Nekazaritzarekin harreman estua izan du betidanik Barazki Bizidunak proiektuko Iñaki Garcia Grijalbo *Mapik*. Bizitzaren paradoxak, gaur egun saltoki handi baten apar-kalekua den lursailean zuten baratzea garai batean etxeok Donostiako In-txaurrondo auzoan. “Saltokiaren eta bariantearen eraikuntzengatik galdu genituen baratzea eta baserria, baina zaletasuna beti mantendu nuen”. Hainbat lanbidetan aritu eta gero, Tolosara bizitzera etorri zenean jakin zuen baratzegintza ekologikoan ari ziren batzuk laster jubilatzeak zirela. Nekazaritza ikasketak egin eta Berrobiko barazki ekoizpenaren eskualdaketa egin zuten 2011n.

HAZITIK KONTSUMITZAILERAINO

Barazkiez gain, loreak ere ekoizten zituen nekazari gipuzkoarrak hasierako urteetan, baina 2018an kazkabar jasak loreen beirazko negutegia eta azpiegitura suntsitu zizkion. Geroztik, barazkiak ekoiztera bideratu du proiektua *Mapik*: “Hemengo betiko barazkiez gain, barietate bereziagoak sartzen ere saiatzen naiz, hala nola kalea, radichioa, mizuna, eta jatorri txinatarreko beste zenbait barazki”, azaldu du. Horietako asko, gainera, hazitik egiten ditu ekoizleak: “Zailagoak direnak erosi egiten ditut, baina saiatzen naiz landare asko neroni egiten, hazitegian. Gutxiago gastatzen dut, eta ekoizpen prozesuaren gaineko kontrol handiagoa dut”. Tolosaldean eredu ekologikoan aitzindarietako batzuk izan ziren aurreko ekoizleak, eta bide beretik jarraitu du lanean *Mapik*, bere jardunean mimo eta ilusioa jarrita.



TOLOSAKO AZOKA

TOLOSAKO AZOKA, SALMENTA GUNE NAGUSIA

Zuzeneko salmenta egiten du Barazki Bizidunak proiektuko kideak, eta horretarako, bi bide nagusi ditu: Tolosako azoka eta etxez etxeko banaketa. “Barazkiak hozkailutik pasa gabe, freskoan eta ahalik eta denbora tarte laburrean saltzea da helburua, produktuaren balio organoleptikoak eta nutrizionalak ez galtzeko”, dio. Larunbatero jaisten da Tolosako azokara, baina, astean zehar, sare sozial bidez martxan duen taldean jasotzen ditu eskaerak. “Zerrenda bat bidaltzen diot talde horretako jendeari, ze barazki ditudan adieraziz, eta haiek eskaera egiten dute, helbidea ere zehaztuta”. Astelehenetan jasotzen ditu eskaerak, eta asteartean egiten du banaketa.

Nekazarien mugimendu eta sareetan ere parte hartzen du *Mapik*. Besteak beste, Biolur, Gilbe -lorazale eta barazkigileak- eta Bagea -Baserritar Gazte Elkartuen Auzolana- elkarteko kide da. “Nekazaritzan jarduteko geroz eta oztopo eta eskakizun gehiago ditugu, araudiak zorrotzak dira, eta behartutako digitalizazioarekin ere sektorea sufritzen ari da. Azkenean, baratzeko lanak bezainbeste denbora hartzen digute TicketBAI sistemak eta antzeko paper kontuek, eta ekoizle asko ari gara galtzen eskakizunak bete ezinik dabilzalako”, salatu du. ●

AURKEZPEN BEREZIAK

Haziak liburu berria

Miguel Arribas *Kelo-k* eta Marc Badalek *Haziak. Zertarako eta nola egin zureak* liburuak kaleratu berri dute ARGIArekin. Aurkezpenean bi egileek azalduko dute egindako lana eta ikusgai egongo dira Dani Blancok libururako berriaz ateratako makroargazkiak.



NOIZ: Irailak 20, ostirala, 18:30ean.

NON: Azpeitian, Elikagunean

LIBURUA ESKURATZEKO: 26 euroan

salgai azoka.argia.eus webgunean eta zure herriko liburu denda eta landare kooperatiban.

Irailaren 30era arte eskaintza

berezia: ARGIAkoa eginda jaso etxean opari (argia.eus/eginargiako). ARGIAko kide bazara 24 euroan (idatzi azoka@argia.eus helbidera edo deitu +0034 943 37 15 45 zenbakira).

Ilargia eta landareak 2025eko agenda

Jakoba Errekondok agenda aurkeztuko du eta kontsultategia eskainiko du; Antton Olariagak agenda honetarako sortu duen “piztariaoa” erakutsiko du eta Unai Agirrek bertso zaharrak kantatuko ditu.



NOIZ: Irailak 26,

osteguna, 19:00etan.

NON: Tolosan, Topic-en.

AGENDA ESKURATZEKO: 15 euroan

salgai azoka.argia.eus webgunean eta zure herriko liburu denda eta landare kooperatiban.

**HITZALDIA ANTOLATU
ZURE HERRIAN:
solasaldia@argia.eus**

MAKROFESTIBALAK

Ezin neurria hartu eukaliptoari

Boga Boga festibala antolatu dute Donostian, eta jaialdiaren bezperatan, EHUko Uda Ikastaroen barnean, bi eguneko jardunaldiak egin dituzte Dabadaba aretoan, Egia auzoan. Hainbat musikari ez ezik, zenbait makrofestibalen antolatzaileak bertaratu dira hizlari gisa, baita entzutera ere.

 **GORKA PEÑAGARIKANO GOIKOETXEA / ARGIA CC-BY-SA**

Eukaliptoak bezalaxe funtzionatzen dute makrofestibalek”, esan du Nando Cruz kazetari eta *Macrofestivales. El agujero negro de la música* (Makrofestibalak. Musikaren zulo beltza) liburua egileak; kritikoa da *makro* formatuekin, jasangarritasunaren aurkako forma direlako nagusiki, eta gehiegizko hazkundera gertatzen ari delako.

Eukaliptoak azkar hazteko gai da. Negozio ona da egurraren industrian, asko eta bizi-bizi ematen duelako. Baina, era berean, ingurua jaten du, ur asko eta nutriente ugari behar baititu. Gauza bera gertatzen da makrofestibalen formatuarekin: kulturaren ulerkera terminoetan hitz eginda, usurpatu egiten dute lurra; inguruko zuhaitzak desagerrarazteko gai dira.

Nola kaltetzen dute ingurugiroa? Gizarte honetan -ia- edozertarako ahalmena ematen duen horrekin, diruarekin. Makrofestibalen enpresek zifra handiak eskaintzen dizkiete musika-taldee, eta kantitate horren truke, besteak beste, sinarazten diete eksklusibotasun kontratua; alegia, denbora-tarte jakin batean eta halako distantzia-erradio batean ezin duzu kontzerturik eskaini. Taldeei mugak ezartzeko modu horrekin, helburua da publikoari abanikoa txikitzea, gustu-

ko taldea uda honetan ikusteko aukera bakarra festibal jakin horretan izatea.

Ez da *amerikanoen* kontua, Euskal Herrian ere horrela funtzionatzen du. Azpeitiko San Agustin kulturgunea kudeatzen duen Kulturaz kooperatibako Eusebio Belokik hala baieztatu du jardunaldi hauetako mahai inguruan. Geroz eta gehiagotan gertatzen zaie musika taldeei deitu eta ezezkoak jasotzea, handik aste edo hilabete batzuetara halako lekutan jotzen dutelako. Horrelakoxea bihurtzen ari da egunerokoa, Belokiren esanetan, eta gogoan hartu ditu Durango-ko Plateruena, Ondarroako Beikozini eta Donostiako Antiguako Doka aretoak: “Ez da kasualitatea itxita egotea”. Bide batez, egoera baliatu du Belokik musika-taldee deia luzatzeko, egoeraz hausnar dezaten.

Cruz kazetari kataluniarrak Sant Feliu de Guíxols herriko adibidea ipini du. Giroman dagoen kostaldeko herria da, 22.000 biztanle dituena, eta urtero-urtero, aspal-ditik, Porta Ferrada izeneko makrofestibala antolatzen da bertan. Lehen, hori guztia bateragarria zen herritarrek antolatzen zuten beste festibal batekin, zeinean herriko musika-taldeak ziren protagonista -musikarako zaletasun handia duen herria da, Cruzen esanetan-. “Jan egin zuen erabat”, esan du Cruzek. Da-

goeneko ez da herri mailako festibal hori antolatzen. Udalak, alor horretarako dirupartidak makrofestibalera bideratu ditu.

DIRU PUBLIKOAREN ULERKERA

Jarrai dezagun San Feliu de Guíxols herriarekin, adibide esanguratsuak ematen baititu. Kontua harago doa; ez da soilik herriko festibal horri dirua emateari utzi eta bestean jarri zuela fokua. Udalaren jarduna ikertzen ari da Ustelkeriaren Aurkako Kataluniako Bulegoa. Izan ere, urtero, Portada Ferrada makrofestibalarik 33.000 euroko subentzioa ematen dio udalak -22.000 biztanleko herri batean, urtean hainbeste diru enpresa berberari, bada zerbait-. Cruzek, konparaketarako, Bartzelona hartu du: gutxienez dozena bat festibal handi antolatzen dira hirian, eta San Feliu de Guíxolsekin alderatuta, bost aldiz diru gehiago ematen du udalak; alegia, biztanleko askoz ere gutxiago, Bartzelonan 1,7 milioi bizi baitira.

Inpaktu ekonomikoaren “aitzakia” izan ohi da, sarri, administrazioek erabiltzen duten argudioa. Jakina da turistak erakartzeko asmoz antolatu ohi direla makrofestibalak, eta ez zertan turista atzerritarrik, baita ingurukoak ere. Baina turistak. Alojamentua, taberna eta jatetxeetako



Ezkerrean, mahai inguru nagusia. Eskuinean, Nando Cruz kazetari eta idazlea.

kontsumoa, taxiak... Horiek izan ohi dira administrazioek darabiltzaten aldagaiak “inpaktu ekonomikoa” kalkulatzeko. Tranpatia da. Diru-sarrerak izanagatik ere, horiek ez dira populazioaren artean banatzen –nola bada!-. Turismoaren eraginik ez duen edozein sektoretan lan egiten duen herritarra bizi baldin bada makrofestival horietakoren batetik gertu, eta zuzen-zuzenean kutsadura akustikoa –eta bestelakoa- pairatzen baditu, zer inpaktu ekonomikoz ari dira agintari politikoak eta enpresa antolatzaileak, “ongi joan da” esaten dutenean?

“PERSPEKTIBA EZ GALDU”

Jardunaldietan egon dira festivalak antolatzen dituzten zenbait pertsona. Aholkuak eskatu dizkiete hizlariei, bereziki Joan Vich aditu eta asko arituari –musikaria da, diskografian ibilia, musikariaren mundu mailako biren antolatzaile, eta Espainiako handienetakoa den FIB festivalaren sortze prozesuan ibilitakoa, programazioaren arduraduna izandakoa-. “Hasierako perspektiba” ez galtzeko esan die.

Aquí vivía yo (Hemen bizi nintzen ni) liburua idatzi du Vichek. FIB jaialdi eza-gunari buruz ari da “hemen” esaten duenean. Valentziako kostaldeko Benicàssim herrian 1995etik egiten den makrofesti-

Barrera sozioekonomikoak gainditzeko balio al du zuen jaialdiak? Kultura pizteko? Identitatea sustatzeko? Kohesionatzeko?

Makrofestivalen antolatzaileei gogoetarako utzitako galderak

bala da. Jaialdiaren hastapeneko une gozoak oroitu ditu, baina gaur egun denaz ez du gauza bera esan –berak ja ez du jaialdiarentzat lanik egiten-: “6.000 pertsonako edukiera baldin baduzu eta segituan agortzen badira sarrerak, hazteko presioa sentitzea normala da. Zergatik ez duzu hurrengo urtean 10.000koa egingo? Eta horiek xahutzean, hurrengoan gehiago... Saiatzen naiz haztea erabaki dutenak ez kritikatzeko, ulertzen baitut sistemak berak bultzatu dituela horretara”.

Eta sakondu du FIB festivalaren kasuan: “Gerora ikusi dut hasieratik zegoela hazteko asmoa. FIBen sortzaile eta

ideologo nagusia zenak ikusi zuen zer zetorren, eta duela 25 urte utzi zituen ardurak. Orduan, gunea lekualdatu eta asko hazteko plana abiatu zen. Jakina, era berean, onenekin lehiatu nahi baduzu, haztea erabaki behar duzu; hazten ez bazara, haztea erabaki duenak eramanango ditu zuk ekarri nahi zenuen musikataldeak, gehiago ordaintzeko gaitasuna duelako; eta, bide berean, instituzioek diru gehiago emango diote turista gehiago erakarri ahal dituenari”.

Antolatzen den jaialdia antolatuta ere, hainbat gogoetarako galdera presente egon beharko liritekeela nabarmendu dute Cruzek eta Vichek: barrera sozioekonomikoak gainditzeko balio al du jaialdiak? Kultura pizteko? Norberaren, herriaren edo kolektiboaren identitatea sustatzeko? Eta kohesionatzeko?

Adibide bat ipini du Cruzek. Abisatu die publikoaren direnei: “Mutur-muturrekoa izango da zuentzat, akaso”. Iruñeko *Ibaier-tzean*. New Orleanseko musika eta Brass Band-a. Haien kabuz antolatu zuten hasieran, eta gerora udalaren diruari baietz esan zioten. Baina ez “handitzeko” eta “hazteko” helburuz, baizik eta aurreko paragrafoan aipatutako galderei baiezkota erantzun ahal izateko, jendearen eta herriaren beharrak asebetetzen ahalegintzeko. ●

BRUCE LABRUCE-K 60 URTE

Kulturaren eta zinemaren kontra

Zuzentasun politikoaren etsai amorratua bilakatu da Bruce LaBruce (Southampton, Kanada, 1964) zinemagile gay-a. Filmatzeko sosik gabe, emakume zoro eta punkiekin bizi zela etxetzar batean, lagun horien bizitzak dokumentatzen abiatu zen. Antzera dihardu egun: aurrekonturik gabe, inguru korporatiboetatik urrun eta pornoa arma politiko gisa erabiltzen. Pentsamendu atzerakoiei eraso egitea du helburu, eta LGBTQ+ komunitatea erakustea, baita sakon aztertu eta zenbait kritika egitea ere. Punk espirituak eta queer sentsibilitateak bat egiten dute.


JULEN AZPITARTE

Azken hamarkadetako zinema zuzendari ausartenetarikoa bihurtu da Bruce LaBruce, eta, sarri, 1990eko hamarkadan eraturako New Queer Cinema mugimenduaren bueltan kokatu izan dute. Bera ez dago ados. Honela esan zuen 2020ko elkarrizketa batean: “Nire filmak benetan bereizten dituena, bakarrak egiten dituena, erabat pornografikoa naizela da. Ez diot inoiz uko egiten pornografiari. Mugimendu horrekin lotu izan naute, baina benetako hardcore pornoa egiten ari zen bakarra ni nintzen”.

Pornoa erabiltzen du tresna politiko gisa: “Queer aktibismo moduko baten antzera, muturreko aktibismo bat. Izan ere, gay askapen mugimenduaren motor guztia muturreko sexualitatean oinarritu zen, eta sexua bere kanpoko muge-

tara bultzatu zuen, erabat ezohikoa eta sexualki esperimentalak izanik”.

Era berean, LaBruceen filmek “estetika klandestinoagoa” erakusten dute, New Queer Cinemako kideen lanekin alderatuz gero. Esaterako, bere azken pelikulan, *The Visitor* (2024), errefuxiatu batek hankaz gora jartzen du Londreseko familia dirudun bat, seduzitzeko agertzen duen gaitasuna tarteko. Pasoliniren *Teorema* filmean oinarritua, Londreseko Tamesis ibaiaren ertzean errefuxiatu bat agertzen da, biluzik. Goi-klaseko senitarteko batek etxean hartuko du, baina errefuxiatu horrek familia aberatsaren egonkortasuna nolabait zartaraziko du, besteak beste, familiakoeekin izango dituen sexu-saio gordinak direla eta.

Irakurleak imajina dezakeenez, LaBruceeri zentsuraren mailua jasatea ego-

kitu zaio behin baino gehiagotan, bere lanetan erakutsitako eduki esplizituak tarteko. Batzuetan, film beraren bi bertsio egin izan ditu: jatorrizko bertsio gordina, batetik; eta, bestetik, bertsio arinagoa. Eta, horrez gain, hainbat herrialdetako aduanetan bere filmen kopiak birrindu dituzte. Publikoki hitz egin izan du horri buruz: “Eduki sexual esplizituagatik ez ezik, fetitxismo esplizitu batekin lotutako kontuengatik ere debekatu dituzte nire filmak”. Haatik, LaBrucecek hainbat sari ere jaso ditu hamaika herrialdetako zine-jaialdietan.

SITUAZIONISMOAREN TRAZAK

Zine zuzendariak gainera, argazkilaria eta idazlea ere bada LaBruce, eta idazketa-lan hori hainbat hedabidetan egin du, artikulugile gisara, baita zine-kriti-

kari ere, tartean, *Eye Weekly*, *Talkhouse*, *Exclaim!* eta *Vice*-n. Estilo mingarriz eta zorrotzez idatziriko testuak, satira sozialaren itxura hartzen dutenak. Bada, Editorial Cantico argitaletxeak 1990eko eta 2000ko urteetan argitaratutako hainbat idatzi bildu ditu *Contra la cultura* (Kulturaren aurka) liburuan.

Bildumaren izenburuak aipamen zuzena egiten dio Guy Debord pentsalari eta zinegile situazionista frantziarrak 1964an plazaratutako *Contre le cinéma* (Zinemaren aurka) liburuari. Situazionisten arabera, zinema gizarte garai-kidearen arte nagusia da; beraz, xedez iraultzailea beharko luke izan. Era berean, situazionistek ohartarazi zuten indibidualismo artistikoaren ordezkaritza pasiboa izan zitekeela, eta horrek parte-hartzailea ez den ikuskizunaren botearen hazkundea ekarriko lukeela. Berriki emandako elkarrizketa batean honako hau esan du LaBrucek: “Kulturaren aurka terminoa erabili izan dudanean, arintasun jakin batez egiten dut, baina baita nagusia den ideologia eta kulturaren onarpen pasiboaren kontrako oharpen gisa ere, eta azpikulturak besarkatzeko estimulu gisa ere bai”. Zinearen xedearen harira, behin baino gehiagotan aipatu du zinea egiten eta idazten hasi zela jendea haserretu nahiaz, jendea molestatzeko eta nahasteko.

Izenburuaren bidez, halaber, goi- eta behe-kulturaren arteko arrakala ezereztu nahi du LaBrucek, bigarrenaren aldeko jarrera irmoa erakutsita: “Goi-kulturaren bertuteak goraiapatzen dituzten pertsonak, sarritan, pop-kultura apur bat mespretxatzen dute, eta ni horren kontra nago, erabat”.

HAINBAT PASARTE NABARMENTZEKO

Liburuan jasota geratu diren LaBruceren testuak hainbat garaitakoak dira. Esaterako, zenbaitzuk milurteko aldatetarekin eta AEBetan 2001eko irailaren 11n gertatutako eraso terroristarekin batera argitaratu ziren, eta askotariko gaien inguruan ardazten dira: Jean-Luc Godard zinegilearen *Weekend* filmean oinarritutako autoezbearrei buruzko argazki-saioa, zuzeneko sexu-performanceak, neonazien arteko eszena pornografiko homosexualak sexu errealekin, drogak, festak edo gay izateari buruzko gogoetak... “Ez zait iruditzen homosexuala izate hutsa-gatik gai homosexualari buruz bakarrik idatzi behar dudarik”.

Gai horiek ez ezik, LaBrucek zinearen inguruko testu oso interesgarriak ere jaso ditu liburuan, bere ezagutza akademiko izugarriaz baliatuta – Torontoko zine-eskolan ikasi zuen, 1970eko hamarkadaren amaieran-. Besteak beste, idatzi batean kontatzen du nola hegazkin bidaia batean ikusi zituen *Erin Brockovich* (Steven Soderbergh, 2000) eta *Music of the Heart* (Wes Craven, 1999), eta bien konparaketa eta lotuneak osatuta, bigarrenaren alde agertzen da bera; hots, film txikiaren aldeko aldarria egiten du:



"*Music of the Heart* filma *Erin Brockovich* pelikularekin batera ikusten denean, lehenengoak kasik zinikoa dirudi,

nahiz eta irmoki salatu zuten sentimentala eta sentsibleria besterik ez zelako”.

Jim Carreyk antzezututako *How the Grinch Stole Christmas* (Ron Howard, 2000) filmaren inguruko testua ere bikaina da: “Ziurrenik, Grinch berriaren alderdirik aztoragarriena bere [Carreyren] antzezlanen karga sexuala eta oldarkortasuna da. Jerry Lewis Hollywoodetik inoiz sortu den aktore-rik ahozkoena izan zen bitartean (edallontzi oso bat ahoan sartzen zuean edo eskua sartzen zuean eztarria ukitu arte), Jim Carrey komikorik anailena da. Kantuan ari den bere ipurdi lotsagarritik kakaren gaineko bere txiste amaigabeetara, Carrey bere ipurdiaz eta besteen ipurdiaz maite-minduta dago”.


Aparteko aipamena merezi du Matthew Sweet musikariaren *Girlfriend* disko zoragarriaren azalean agertzen den Thursday Weld kultuzko eta “nortasun intransigente eta subertsiboko” aktoreari buruzko testuak. “Bere aurpegi ustez ederrak eta ile horizko adats handiak, hortzak banatuta erakusten dituen bere irribareak eta begi beltz sutsuek, emakume modernoaren kontraesan, plazer eta oinaze guztiak hartzen dituzte”.

Finean, artikuluko transgresioaren kronika finak dira, –goi– kultura birrintzeko grina erakusten dutenak, baina era berean irri adimentsuari leku egiten diotenak. Mundua distantzia kritikoz begiratu nahi duen punk-queer baten isla dira, edo LaBrucek berak esango lukeen bezala, “arantza bat gizarte heziaren sabelpe krematsuan”. ●





Hitz gezidunak

| | | | | | | | |
|--|--|---|---|----------------------------|------------------------------|--|-----------------|
| ARRAZOIA, ZERGATIA LOALDI | SORBALDA, BIZKARRA AMIGDALEN HANTURA | POTENTZIA UNITATEA | TXAKURRAK IRRIKA | LEGEZ, BEZALA KILOA | ABERE TALDEA ERRALDOIA | GAUGIRO Pertsonaiaren abizena | |
| | | ZERBAIT AURKEZTEN DUENA NEONA | | | | | |
| PERTSONAIAREN IZENA IMANARI DAGOKIONA | | | | IKUR, MARKA OXIGENOA | | | |
| | | | | | ZELAIA, TOKI LAUA UTIKAN! | | |
| TOKI HARTAN | KASIK NAFARROAKO HERRIA | |  | | | ERBIOA UGAZTUNEN ORDENA | |
| | | TXIMELETA LARBA | | | | DRUGA MOTA ...ZART, KOLPEAREN ONOMATOPEIA | |
| SINDIKATU ABERTZALEA BERUNA | | | | | | | ELEMENTU KIMIKO |
| | BIGARREN BOKALA ERORI ADITZAREN ERROA | | | | | PORTUA (ALDERANTZIZ) 1002 ERROMATARRA | |
| ARRESKE DAR-DAR EGINEZ | | ZUKU ARABAKO KONTSUMITZAILEEN ELKARTEA | ITXURA KONTSUMORAKO PREZIOEN INDIZEA | METROA | MEGA MUSIKA ESTILO | LITROA TORTURAREN AURKAKO TALDEA | |
| | | | | ITOARAZI ZEREZ ATZIZKIA | | | |
| BEGIRADAK AURREZ, AURRETIK | | | PRAIAKO HERRITAR TONA | | | | |
| | | | | | ERABATEKO, BETE-BETE | | |

Sudoku

BETE ITZAZU GELAXKAK 1ETIK 9RAKO ZENBAKIAK IDATZIZ, ZUTABE, LERRO ETA 3X3 KOADRO BAKOITZEAN ERREPIKATU GABE.

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | 2 | | | 1 | 3 | 7 | 4 |
| | | 7 | 5 | 3 | 2 | | 9 | |
| | 6 | | 7 | | 9 | 2 | 1 | 5 |
| 9 | | | | | | | | 2 |
| | | | 3 | 1 | | 6 | 4 | |
| | 1 | 8 | | | 4 | | 5 | 3 |
| | 7 | | | | | 4 | | |
| 2 | | | 4 | | | | | |
| | 8 | 6 | | 9 | 3 | | | 2 |

5x5

ZEHARRETARA ETA GOITIK BEHERA, HITZ BERA.

1. Aldapa.
2. Asiako herritar.
3. Zikin, lohi.
4. Du.
5. ... hartze, arnasgora.

| | | | | |
|--|--|--|--|--|
| | | | | |
| | | | | |
| | | | | |
| | | | | |
| | | | | |

EBAZPENAK

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 4 | 8 | 6 | 1 | 9 | 3 | 5 | 2 | 7 |
| 2 | 5 | 1 | 4 | 7 | 7 | 6 | 9 | 3 |
| 3 | 7 | 1 | 2 | 8 | 5 | 4 | 6 | 1 |
| 6 | 1 | 8 | 6 | 2 | 2 | 4 | 7 | 5 |
| 7 | 2 | 5 | 3 | 1 | 8 | 6 | 4 | 9 |
| 9 | 3 | 4 | 6 | 5 | 7 | 1 | 8 | 2 |
| 8 | 6 | 3 | 7 | 4 | 9 | 2 | 1 | 5 |
| 1 | 4 | 7 | 5 | 3 | 2 | 8 | 9 | 6 |
| 5 | 9 | 2 | 8 | 6 | 1 | 3 | 7 | 4 |

5XS:

| | | | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| O | L | E | P | Z | V | I | L | E | R | R | E | U | R | V |
| A | R | A | V | A | P | A | K | A | R | S | O | R | S | O |
| O | A | R | K | A | I | R | V | A | T | O | D | A | R | D |
| L | M | M | K | U | E | L | I | E | L | I | E | L | I | E |
| K | V | A | V | | E | | B | P | | | | | | |
| | R | I | R | Z | | B | V | L | | | | | | |
| O | I | O | | | | | N | V | H | | | | | |
| R | E | | U | J | | | V | I | | | | | | |
| V | A | B | N | O | K | I | E | N | G | V | A | M | | |
| U | N | I | E | Z | V | Z | J | N | I | N | O | | | |
| V | E | L | E | Z | V | U | R | K | E | Z | V | O | B | |
| G | E | L | O | W | S | | | | | | | | Z | |



Gorputza bistan, zauria oholtzan

UXUE GUTIERREZ LORENZO DANEL LLAVORI

L arunbat iluntzea, Erandioko jaiek eta ekaitzak agurtu dute abuztua. Eire talde zumaiarraren kontzertua 22:00etan dago iragarrita. Bolo-bolo dabil taldea azken aldian. Iazko azaroan kaleratu zuten lehen EP luzea, eta aurtengo talde berri onenaren Gaztea Saria jaso zuten otsailean.

Oholtza handia da Erandiokoa, eta hasiera batean bi Eire ziren arren, hiru kide ditu orain taldeak. Hiru neska gazte agertu dira oholtzan; Eire Maia kantuan, Eire Salegi gitarrarekin eta sintetizadorearekin (eta tarteka kantuan), eta Nerea Urteaga bateria jotzen.

Patxadaz hartu dute 45 bat minutu iraun duen zuzeneko; eta, iragarri dutenez, gaurkoa dute deskantsuaren aurreko azkenaurreko kontzertua. Artean emango dute azken kontzertua, eta ondoren sorkuntza lanetan emango dute denboralditxo bat.

Besteak beste, *Nahi gabe berriro* edo *Bihar Nola* kantu propioekin gozatu dute musikariek. Bertsio sorta kurioso osatu dute, argi utziz gustuko dutena egiten dutela, etiketa eta estilo sailkapenetan galdu gabe: entzun dugu Lana del Reyren *Summertime*-n bertsioa, EH Sukarra taldearen *Aspaldiko loreak* eta, bestetik, *DAKITI* kantu famatuaren bertsioa.

Emanaldian nabari da hiru kideen arteko konplizitatea, bereziki bi Eire-en artekoa. Diskoko kantuak, datorrenaren aurrerapen kantu bat eta zenbait bertsio tartekatu dituzte. Gozatu dute oholtzan, eta elkarren arteko begirada, besarkada eta xamurtasun keinuek josi dute zuzeneko.

Zauriren bat bistan diskoak dioenez, pairatutako minez josi dituzte kantuak, eta nabaria da mimoz eta intimitatean askatuz ari direla. Batzuetan, agian, hain

EIRE

NOIZ: abuztuaren 31n.

NON: Erandioko Irailaren 23a plazan.

justu horregatik ematen du lotsatuta bezala ari dela kantatzen Eire Maia, nahiz eta ondo dakien Eire Salegi uneoro due-la konplize eta bidelagun. Irudipena dut oraindik askatzen ari direla, azkar etorri dela dena; agian, azkarregi. Kontatu dute txiki-txikitatik ezagutzen dutela elkar biek, eta musikarekin harreman estua izan dutela beti.

Iragarri dute kontzertuaren amaiera; eta, bukatu aurretik, nola ez, *Amaitu baino lehen* kantu dantzagarriari tokia egin diote. Goxo agurtu dute Erandio; betiere, gorputz eta arima, zauri eta sentipenak agerian: “*Seguru nago baina gero ez. Bihozkada batek dio baietz, patuaren biktima beste behin, zoria ez da halabeharrez*”. Aldarrikatu dute zailantza, ezinegona, kezka; eta, batez ere, hori kantatuz kontatzearen nolabaiteko poza. Mina bistan jarri dute, beraien gorputz eta ahotsetan. ●



LIBURUA

Noiz ospatuko dugu gurea?



EREIN

PUTZUA

GOIATZ LABANDIBAR

EREIN, 2024

AINHOA ALDAZABAL GALLASTEGUI

Goiatz Labandibarren *Putzua* egun batean gertatzen den hazkunde nobela bat da: hilekoa jaistek markatzen duena, hain zuzen ere. Edo bestela esanda, heroiaren bidaia bat, zergatik ez.

Nobela mota honetan gertatu ohi den moduan, Laure protagonistaren mundu ezaguna aldatzen duen zerbait gertatu da: hilekoa jeitsi zaio goiz horretan. Laure bakarrik dago etxean eta kule-roak odolduta dituela konturatu denean burutik pasatu zaion pentsamenduak irekitzen du lehenengo orria: *"Hil egingo naiz..."*. Beldurra du: beldurra hiltzeari, gaixotzeari, hondartzara joan ezinari. Dena hilekoaren erruz.

Telefonoz amarekin hitz egiten duenean Laurek hilekoa denik ukatzen du, ez baitu egoera hori onartu nahi. Eta lotsa ere sentitzen du. Horregatik, amonari eta aitari ez kontatzeko eskatzen dio amari. Eta laguneri ere ezer ez kontatzea

erabakitzen du. Ania, ahizpa nagusia, izango da lasaitasun hitzak eskainiko dizkiona.

Heroiak bidaia hasi aurretik sentitzen dituen ohiko sentimenduak ditu Laurek: beldurra, ukapena eta lotsa.


Bazkal orduan etxean elkartu dira denak: ama, aita, Ania, amona eta Laure bera. Nahastuta dago, kontraesanez eta zalantzez betea.

Heroiaren bidaian mentoreak funtzio garrantzitsua du: bidaia egitera animatu eta bidean akonpainatzea da bere lana. Kasu honetan hainbat mentore izango ditu Laurek, hilekoaren begiradatik arketipikoak izan daitezkeenak eta bizitzaren zikloko momentu ugari erre-presentatzen dituztenak. Aurrenekoa Ania da: lehenengo hilekoa denboran gertuen duen pertsonaia. Ama menopausiatik gertu dago eta hilekoarekin bizitzera ohitu ostean galtzeak sortzen dion beldurra partekatzen du Laurerekin. Bera

ere aldaketa fasean dago eta ongi ulertzen du alabaren egoera. Lotsa gaindituta, amonarekin hitz egitera animatzen da Laure: jada odolrik ez duen pertsonaia, zahartzaroan sartu dena jada.

Konfiantza eta segurtasun egoera sortzea lortu dute denek artean eta horrek lehenengo hilekoa ospatzeko ausardia eman dio Laureri. Aitak kontu logistikoekin lagunduko dio eta etxekeekin batera lagunak ere gonbidatu ditu pizza jan eta telesail bat ikustera. Segituan txor-txor hasi dira denak, hilekoarekin duten harremanaz eta beldurrez hitz egiten, konfiantzan eta gustora asko. Eguna hasi duenean baino jakintza gehiago du Laurek egunaren amaieran; eta deserosoa eta ezezaguna zitzaion hori ospatzeko adorea bildu ditu.

Esango didazue bidaia hasten denean amaitzen dela liburua, baina txiribuelta ederra eman dion bidaia irakur dezakegu testu honetan. Ospatuko dugu gure lehenengo hilekoa? ●



MUSIKA

Eguzki izpi gabekoak hunkitzen



ERRAUTSETATIK LORATZEN AÑUBE

AUTOEKOIZPENA, 2024

IKER BARANDIARAN

Aspaldian sarri pentsatzen dut Debagoiengan gazteek ia soilik musika urbanoa edo *oi!* musika, bata edo bestea, entzuten dutela; hortik kanpo apenas dagoela jende multzo dezente-koak mugitzen dituen musika paletako bestelako kolorerik. Baina badira, zorionez, bestelako zirrikitu eta koloreak, harritzen banaute ere, pozgarriak direnak.

Fiachras talde bergararrak aspaldi zabaldu zuen bidezidor berezi bat, non punk eta *oi!*-aren inguruan ibilitako musikariek folk irlandar eta oinarrieta-ko rockean murgilduta, distortsio gabe eta tenpo pausatuagoan, lortu zuten hunkitzen duten hitz eta doinuak idaztea, lagun -eta garagardo- artean abes-teko modukoak.

Arrasate, Bergara, Areantza eta Atau-neko kideak dituen Añube ere denborarekin zabaldu eta aberastu den bidezidor horretan kokatzen dut. Hans poetak idatzitako piezak mimoz musikatuta, rock, pop, folk, country, gure sustrai eta itsasoko langileetan hezurramitzen dira; eta, bai, publiko gaztea zinez hunkitzen dute.

Bigarren disko luze honetan Hans-en ahotsak eta Garmen-en saxoak gero eta pisu handiagoa dute, eta gehiago boro-bildu dituzte kantuok. Hamaika kantu, hamaika bizipen eta hausnarketa, jautsi eta altxatzeari, gure lur eta sustraiei, izan ginenari eta izango garenari abestuek.

Sutan xume hasten da, saxoak hauspotuta erritmoa hartu eta itsaskorretik tiraka hazi egiten da. *Desegin*-ek

eramaten gaitu Moher-eko itsaslaba-rrera eta behin lur hartuta lagunei sor-baldatik helduta abesten dugu. *Bizarra lepoan* eta *Itsututa*, gurean Pettik landutakoen moduko country-rock tenpoetan murgiltzen dira oso dotore. *Indarberritzen* ahaidetuta dago Iheskideren esentziarekin. *Zutik*-ek badu punk *oi!*-aren distortsio gabeko karentzia eta Doctor Deseoren sedukzioa batzeko atrebentzia. *Zentzu bila* da sentimendu eta bizitza gorabeherekin jokatzeko duen pieza borobila. Eta badira, baita ere, Guardia Zibilak Arrasaten egindako sarraskiaren biktimei eskainitako *Kanpazar 1975* zein *Entre paredes de ladrillo rojo*-ren bertsioa, are eta hunkigarriagoak. ●

Olivençan bada zer ikasia

 GORKA BEREZIARTUA MITXELENA

Sail hau irakurtzeko ohitura dutenek honezkero ezagutuko dute nire lusofilia –DBHkoentzat: Portugalgo gauzekiko zaletasuna, CR7ren bat gorabehera–, baina joan den asteko berriek behartzen naute orrialde honetan *Bandeira Verde-Rubra* beste behin ere jasotzera, zergatik eta, Portugalgo defentsa-ministroak Olivençaren gaineko soberania aldarrikatu duelako; alegia, oraintxe Espainiaren menpe dagoen 11.000 biztanle inguruko herri bat Portugal barruan nahi duela. Irailaren erdia besterik ez da pasa eta dagoeneko bi estaturen arteko muga kolokan. Hori da hori kurtsoa fuerte hastea. Eta ni oraindik plaiako trasteak armairuan gorde gabe, enfin.

Nuno Melo du izena aldarrikapena egin duen politikariak, CSD-PP alderdikoa da eta, bai, asmatu duzue, sigla horiek iradokitzen duten moduan, tipoa trinketezalea da, erran nahi baita, eskuineko paretara arrimatzea gustatzen zaio. Beraz, Olivença berreskuratzeko kontu hau, tira, lasai asko izan liteke nazionalismo portugaldarraren Gibraltar bat, hau da, (i)lusoan animo aberkoiak pixka batean berotuko dituen lasto-sua. Izan ere, kable-biltzaile profesionalen maneran, zabaldu berri zuen meloi melatua itxi du Melok atzera ere 24 orduan, ez omen zen ari ordezkatzen duen gobernuaren izenean eta tartartar. Ezkilarik gabeko kanpai-jotzean geratuko da, segur aski, asuntua.

Baina, ai, kuriositatea. Notiziari tiraka Olivençako aferaz irakurtzen aurkitu dut nire burua eta, aizue, bai gauza interesantea: antza denez, XIX. mendearen hasieran okupatu zuen Espainiak, “Laranjen gerra” deiturikoan. Baina herriaren estatusa ez da inoiz oso garbi egon, 1801ean Portugalgo inposaturiko

Badajozko tratatuen arabera legezatu baitzen konkista; eta paper hori dezente umeldu zen Napoleon garaitu osteko 1814ko Parisko hitzarmenean, baita hurrengo urtean Vienan sinatutakoan ere. Azken horren arabera, Iberiar Penintsulako erresumen erresuminak baretze aldera, eta harmonia nagusitu dadin beti armonian ibili ordez, lurralde puska hori Portugalgo itzuli behar zaio. “Eta potentziek aitortzen dute, haietako bakoitzaren esku dagoen heinean, adostasun hau gauzatu behar dela ahalik eta lasterren”, dio orain dela 200 urte baino gehiagoko dokumentuak.

Espainiak, aitzaki-maitzakika, ez zuen inoiz hitzartutakoa bete. Are gehiago, 1840tik aurrera portugesez hitz egitea debekatu zuen Olivença. Frankismoak handik mende batera egingo zuenaren aperitifia besterik ez zen izan: irakaskuntza gaztelaniaz bakarrik baimendu; kalean portugesez ari zena isunez josi edo atxilotu; toponimia goitik behera kanbiatu; biztanleen izenak espainoldu; eta, errematerako, Espainiako beste

lurraldeetako biztanleak hara eramateko bi kolonizazio-herririk eraiki –San Francisco de Olivença, zeinaren izeneko Francisco horrek, noski, Francori egiten dion erreferentzia; eta San Rafael de Olivença, kasu honetan Rafael Cabestany Anduaga nekazaritza ministro frankistaren omenez–.

Emaizta begi-bistakoa da: gaur egun herriko zaharrenek bakarrik hitz egiten edo ulertzen dute portugesez. Oliventinao, hango portugesearen dialekto bakana, ia desagertu da. Eta ez al dizue inbidiarik ematen? Haiek libre daude hemengo fanatiko xenofobo intolerante nazi taliban ultra baztertzaille saldomaldo guztietatik, ez da planteatu ere egiten 200 urtetako politikek galbidean jarritako hizkuntza berreskuratzea; eta mediku onik ba ote daukaten ez dakit, baina gutxienez portugesez sendatzen duten medikuetatik erabat libre dira. Labur esateko, *la historia de Olivença es toda una lección de convivencia democrática de la que los vascos y vascas podemos aprender muchísimo.* ●




Jakoba Errekondo

ren
hitzaldi berezia
eta kontsultategia

Irailak 26, 19:00etan

Tolosan, Topic-en

2025eko agenda eskuragai
azoka.argia.eus



+ **Antton Olariaga**
eta bere piztiak

+ **Unai Agirre**
bertso zaharrak kantari

Irailak 23, Nekazaritza Ekologikoaren Eguna!

ekolurra.eus



Ekologikoa, dena hobetzeko!